



TOLOSAKO  
UDALA

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2019.07.19**

Tolosako Udaletxean, 2019ko uztailaren 19an, 19:30etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Aparteko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:  
Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Belloso  
Jose Francisco Amantegi Zubiria  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Egoitz Sorozabal Iturain  
Xabier Balerdi Tolosa  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 17 de julio de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre el punto del orden del día que se relaciona:

Kristina Pelaez Errazquin  
Aitzol Garcia Azurmendi  
Olatz Artola Apezteguia  
Ander Figuerido Zubiria  
Garbiñe Marzol Ormazabal  
Xabier Martinez Quinquilla  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria

Ez bertaratutako zinegotziak:  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui  
Aitana Amondarain Esquisabel

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:  
Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. 2019-06-15eko ez ohiko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea ohiko osoko bilkuren egutegia eta egutegi instituzionala.
3. Onartzea informazio batzordeak eratzea eta haien araubidea xedatzea.

### **Orden del día**

1. Aprobación del acta del Pleno Extraordinario del 15-06-2019.
2. Aprobación del calendario de los plenos ordinarios y del calendario institucional.
3. Aprobación de la constitución de las comisiones informativas y de su régimen



TOLOSAKO  
UDALA

- |  |   |
|--|---|
| 4. Onartzea udal korporazioko kideen dedikazioaren araubidea.                                  | 4. Aprobación de la normativa de la dedicación de los/las miembros de la Corporación.   |
| 5. Onartzea dedikaziorik gabeko kideen ordainketak eta udal talde politikoen diru-izendapenak. | 5. Aprobación de las retribuciones de los/las miembros sin dedicación y las asignaciones de los grupos políticos municipales. |
| 6. Onartzea 2019-2023 legealdirako Tolosako Udaleko behin-behineko pertsonala izendatzea.      | 6. Aprobación de la designación del personal eventual del Ayuntamiento de Tolosa para la legislatura 2019-2023.               |
| 7. Onartzea Plenoaren eskumeneko izendapenak egitea beste erakundeetan.                        | 7. Aprobación de los nombramientos de los/las representantes en otras entidades, que son competencia del Pleno.               |
| 8. Berri ematea:   | 8. Dar cuenta:  |
| a) Alkateordeen izendapenak.   | a) Nombramiento de de los/las tenientes de alcalde.   |
| b) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena.  | b) Nombramiento de los/las miembros de la Junta de Gobierno Local.  |
| c) Zinegotzi delegatuen izendapena.  | c) Nombramiento de los concejales y concejalas delegadas.   |
| d) Antolakuntzako lan esparruak eta Alkatetzaren delegazioak.                                  | d) Ámbitos de trabajo y delegaciones de la Alcaldía.  |
| e) Lan taldeen eraketa eta osaketa.  | e) Constitución y formación de los grupos de trabajo.   |
| f) Beste erakundeetan ordezkarien izendapena.  | f) Nombramiento de los/las representantes de otras entidades.   |
| g) Tokiko Gobernu Batzarrak eskuratutako ahalmenak.  | g) Facultades asumidas por la Junta de Gobierno Local.  |

Udalbatzaren Osoko Bilkurak alde zuzenetik onartu behar du ondorengo puntuak aztertzea eta ebaztea, eta haien berri emango da dagokion informazio batzordeak egingo duen hurrengo bileran:

El Pleno de la Corporación deberá aprobar previamente el estudio y resolución de los siguientes puntos, de los que informará la comisión correspondiente en su próxima reunión:

- |  |  |
|--|--|
| 9. 2019/11 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean. Hasierako onarpena. | 9. Aprobación inicial de la modificación de crédito 2019/11, en la modalidad de crédito adicional. |
| 10. 2019ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena. Hasierako onarpena.                      | 10. Aprobación inicial de la modificación del anexo de subvenciones de 2019.                       |
| 11. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.   | 11. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.  |
| 12. 2019/8 kreditu gehigarrien modalitatean  | 12. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía   |



TOLOSAKO  
UDALA

- |  |  |
|--|--|
| egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1209 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.   | 2019/1209, del expediente de modificación de crédito 2019/8, en la modalidad de crédito adicional.   |
| 13. 2019/9 kreditu transferentzien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1218 Alkatetza Dekretuaren berri ematea. | 13. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/1218, del expediente de modificación de crédito 2019/9, en la modalidad de transferencia de crédito. |
| 14. 2019/10 kreditu gaikuntza modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1219 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.      | 14. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/1219, del expediente de modificación de crédito 2019/10, en la modalidad de habilitación de crédito. |

Lehenik, lehendakariak bertaratu direnei ongi etorria eta eskerrak eman ondoren, honako hau adierazi du: "Gaurko osoko bilkura inportantea izango da udal korporazio berriaren arduren banaketa zehaztu eta, gainera, onartu dugulako. Hori alde batetik eta, bestetik, uda aurretik ohikoa izaten den kreditu aldaketa bat onartuko dugulako eta horrek gai ezberdinak bideratzeko aukera emango digulako. Hein handi batean gaurko erabakiak markatuko dute legealdi honetan izango dugun lan dinamika. Pentsatzen dugu aldaketa hori erabat beharrezkoa dela administrazioa garai berrietara egokitzeko eta antolakuntza egitura azkarragoa eta eraginkorragoa izateko. Modu honetan herritarrak zerbitzu hobea izango dutelako eta udal langileak modu antolatu eta, erosoagoa ez dakit, baina behintzat, lasaiagoan lan egiteko aukera izango dugulako. Beraz, egon behar garen denok gaudenez, beraz hasiera emango diegu gaiari aztertzeari.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- |   |  |
|---|--|
| <b><u>1. 2019ko ekainaren 15eko ez ohiko bilkurako akta onartzea.</u></b> | <b><u>1. Aprobación del acta del Pleno Extraordinario del 15 de junio de 2019.</u></b> |
|---|--|

Izenburuan aipatutako aktak aho batez onartu dira.

- |   |   |
|---|---|
| <b><u>2. Onartzea ohiko osoko bilkuren egutegia eta egutegi instituzionala.</u></b> | <b><u>2. Aprobación del calendario de los plenos ordinarios y del calendario institucional.</u></b> |
|---|---|

Alkateak proposamena batzarkideei azaldu ondorengo partehartzeak:

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): "Egutegi honek erantzuten dio udalaren



TOLOSAKO  
UDALA

*antolaketa berriari, baina antolaketa berri honek guri sortzen dizkigu kezkak batzuk. Egokia da egutegi finko bat edukitzea, azkenean denok jakinaren gaienean egongo garelako zer bilera eta zein eguna eta zein ordutegietan izango diren eta bateragarri egingo duela gure bizitza profesional eta pertsonalekin. Dena den, egutegi berrantolaketa berri honi dagokionez, guk abstentzioa emango diogu. "*

## **OSOKO BILKUREN EGUTEGIA ETA EGUTEGI INSTITUZIONALAREN ONESPENA**

Eratze-saioaren ondorengo hogeita hamar egunen barruan burutu behar den Udalaren Osoko Bilkura dela eta, UDALBARRIA eredia oinarri harturik, Alkatetza honek proposatzen du ezar dadila aurreikus daitekeen instituzio-jarduera guztia islatzen duen urteko egutegi bat prestatzeko sistematika. Hori guztia hurrengo xedearekin:

- Udalbatza osatzen duten pertsonen bizitza profesional, politiko eta pertsonalaren arteko bateragarritasuna bultzatzea.
- Administrazio-sail eta azpisail ezberdinek burutu beharreko lanen antolakuntzarako eta planifikaziorako tresnan bilakatzea.
- Udalaren jardueraren gardentasuna eta komunikazioa indartzea.

Azken finean, zera proposatzen da:

- Udal-antolakuntza guztiaren saioetako data eta orduak finkatzeko komenigarritasuna:
  - o Osoko bilkurarenak.
  - o Gobernu Batzordearenak.
  - o Bozeramaileen batzordeenak.
  - o Informazio batzordeenak.
  - o eta kontratazio-mahaienak.
- Jasotako esperientzia oinarri hartuta, aipaturiko organoek kontuan hartu beharko lituzketen gaiak identifikatzeko aukera.

Horietaz gain, 7/1985 Legeak, apirilaren 2kkoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 46.2 artikulua xedatzen duenez, 5.001 biztanletik 20.000 biztanle bitarteko udaletan, udalbatzaren ohiko bilkurak gutxienez bi hilabetetik behin egin behar dira. Bestaldetik, 786/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, bere 47.1



TOLOSAKO  
UDALA

artikuluan xedatzen du udal korporazioek arautuko dutela ohiko bilkuren eguna. 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza,

Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, bere 38.a) artikuluan xedatzen du udalbatza eratu eta hogeita hamar laneguneko epean, alkateak deitutako ezohiko bilkuran, udalbatzaren osoko bilkurak, besteak beste, ohiko bilkuren maiztasuna ebatziko duela.

Hori horrela, Alkatetza honek ondorengo hau

### **PROPOSATZEN DIO UDALBATZAREN OSOKO BILKURARI**

**LEHENIK.-** Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak bere ohiko bilkurak egitea hileko azken asteko ostegunetan, 19:30ean, abuztuan izan ezik. Aipaturiko eguna jaia bada, bilkura bezperan egingo da, ordu berean. Halaber, proposamen honi eransten zaion egutegian aurreikusitako osoko bilkuretako datak -abendukoak eta inauterietakoak batez ere- kontuan hartuko dira.

**BIGARREN.-** Arrazoi justifikatuengatik hilabete batean ohiko osoko bilkuraren data aldatzea beharrezkoa bada, gaia aztertuko da Bozeramaileen Batzordean. Aurreko atalean ebatzitako datatik kanpo egiten den osoko bilkurari ohiko trataera emateak talde guztien adostasuna beharko du.

**HIRUGARREN.-** Ondorenean proposatzen den udal egutegi instituzionala onartzea, izatera orientagarria izango duelarik.



## EGUTEGI INSTITUZIONALA 2019-2023 LEGEALDIA TOLOSAKO UDALA

Egutegian isladatuko diren saioak ondorengo organoenak dira:

- Zuzendaritza taldea – *Astelehena*
- Tokiko Gobernu Batzarra – *Asteartean*
- Kontratazio Mahaia – *Asteartean*
- Arloetako lan-bilerak – *Asteartean*
- Bozeramaileen Bilerak – *Asteartean (bi astetik behin)*
- Batzorde informatiboak (Lurralde, Antolakuntza eta Herritarrak) – *Asteazkenetan*
- Ohiko plenoa – *Hileko azken ostegunetan*

ASTELEHENA		ASTEARTEA		ASTEAZKENA		OSTEGUNA	
ORGANOEN SAIOA	ORDUA	ORGANOEN SAIOA	ORDUA	ORGANOEN SAIOA	ORDUA	ORGANOEN SAIOA	ORDUA
ZUZENDARITZA TALDEA	12.00	ARLOETAKO LAN BILERAK		BATZORDE INFORMATIBOAK		OHIKO PLENOA	19.30
		HERRITARRA	08.00	LURRALDEA	08.00		
		ANTOLAKUNTZA	09.00	HERRITARRAK	09.30		
		LURRALDEA	10.00	ANTOLAKUNTZA	11.00		
		TOKIKO GOBERNU BATZARRA	11.15				
		KONTRATAZIO MAHAIA	12.00				
		BOZERAMAILEEN BILERAK	13.30				

## EGUTEGI INSTITUZIONALA 2019

IRAILA							URRIA							AZAROA							ABENDUA						
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1		1	2	3	4	5	6					1	2	3							1
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	23	24	25	26	27	28	29	
30														25	26	27	28	29	30	30	31						





## EGUTEGI INSTITUZIONALA 2022

URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA							APIRILA							MAIATZA							EKAINA																		
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig												
3	4	5	6	7	8	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12			
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
24	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31				28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29	23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30								
31																					30	31						30	31																								

  

UZTAILA							ABUZTUA							IRAILA							URRIA							AZAROA							ABENDUA													
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig							
4	5	6	7	8	9	10	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	5	6	7	8	9	10	11
11	12	13	14	15	16	17	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	5	6	7	8	9	10	11
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	14	15	16	17	18	19	20	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
25	26	27	28	29	30	31	29	30	31					26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30					26	27	28	29	30	31		26	27	28	29	30	31	
																					31																											

## EGUTEGI INSTITUZIONALA 2023

URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA							APIRILA							MAIATZA															
As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig	As	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig									
						1				1	2	3	4	5				1	2	3	4	5											1	2	3	4							
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14									
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21									
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28									
23	24	25	26	27	28	29	27	28						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	29	30	31													
30	31																																										

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzio botoak:** Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu ditu** ohiko osoko bilkuren egutegia eta egutegi





TOLOSAKO  
UDALA

instituzionala.

**3. Onartzea informazio batzordeak eratzea eta haien araubidea xedatzea.**      **3. Aprobación de la constitución de las comisiones informativas y de su régimen.**

Alkateak proposamena batzarkideei azaldu ondoren du honako partehartzeak izan dira:

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Batzorde eraketa Egutegia bezala berrantolaketa honi erantzuten dio. Jakin badakigu antolaketa honek politikoki eta teknikoki onura ekarri ditzakeela eraginkortasuna igo egingo duelako eta burokrazia murriztu egingo duelako eta ikusten dugulako zehar lerro bezala lantzen diren gaiak egoki ditzakeela koordinazioa ekarriko duelako. Baina egia da berrantolaketa honek aldaketa handi suposatzen duela. Lanketa baten ondorioa izateko eskaera egiten dugu, gure proposamena zen mahai batean aurrean esertzearenak hemen gauden denok esertzea, hilabete batzuk ematea lanketa hori egin ahal izateago eta zehazteko eta erabaki nahi izan da orain onartzea. Badakigu ere onurak ekarriko dituen bezala guri oposizioko lana ez digula erraztuko. Badaude hor zehaztuta ez dauden hainbat gai, informazioa nola ekarriko zaigun, zer-nolako informazioa izango den, teknikariekin, sail bakoitzeko teknikariekin aurrez aurreko elkarrizketa, gaien kudeaketa modua eta gaien inguruko eztabaida gutxiengora murriztuko dituela eta guri horrek suposatzen digu oposizio bezala ezingo dugula lan berdina egin orain arte bezala. Esan beharra daukagu gure kezka azaldu genuela batzorde kopuruan hasiera bi bi eta bat proposatzen ziren, gure kezka zen ezingo genuela denok parte hartu batzordeetan eta horregatik erabaki zen hiru, hiru, bat izatea eta hori eskertzekoa da kezka hori kontutan izan genuelako. Baina beste aldetik, horixe, zehaztapenak eskatu ditugunean, ahal zen moduan eman zaizkigu baina beste aldetik beste gauza asko geratu dira zehaztu gabe, lanketa gehiago eskatzen dutena: kontseiluarena, herritarrekin egiten diren bilera irekiak, informazioa nola emango zaigun, zer aukera izango ditugun batez ere dedikazioa ez duten zinegotziek. Ikusita horrek azterketa edo lanketa zehatzagoa eskatzen zuela, ez onartzea hilabete batzuk lanketa hori ematea eta 2020an martxan jartzea antolaketa hau ez zaigu oso egokia iruditzen. Azkenean, ondorioak izan behar zuelako eta ez erabaki bat hola eta hola hartzea. Lanean hasi eta gero ikusiko dugu zer aldatu behar den hori baiezkota ematea ez zaigu oso ondo iruditzen. Horregatik da gure abstentzioa.”*

... Alkatea: *“Orain planteatzen dugun aldaketa honekin nahi duguna da Tolosari balio erantsia emango dion administrazio bat izatea eta erronka hori gauzatzeko bidea egitea konprometitzen gara dagoeneko legealdi hasiera hasieratik. Hasieratik izatea badu bere garrantzia. Izan ere, erabakiak atzeratzen hasten direnengan konturatzerako legealdi erdira joan da eta horrek uste dugu ematen dugun zerbitzuaren kalterako joango litzakeela. Udalaren funtzionamendua hobetzeko lehen aipatu dudana bezala hiru arlo banatzea proposatzen dugu: antolakuntza, herritarrak eta lurraldea. Udala herritarren zerbitzura jarri nahi dugu eta ez alderantziz, orain arte momentu askotan gertatzen den bezala, Udal jardueran kultura aldaketa bat proposatzen da eta oinarritzen gara gauzatutako beste hainbat*



TOLOSAKO  
UDALA

*udalerrietako esperientzian, ez goaz itsu -itsuan, esperientzi asko ikusi baditugu: errenteria, Zarautz, Legazpi, e.a. eta horrela ari dira komunikabideetan azkenengo ikuspuntuan horrela antolatu dena Hernani bera izan da, Elgoibar, Durango, Leioa eta beste hainbat eta denek izan dute orain arte aurreko legealdian antolaketa modu hori ezarri dutenak esperientzi oso positiboa, bai gobernu taldean baita ere guk jakin dugunez, oposizioan. Izan ere, antolaketa modu honek aukera ematen duelako bai udal gobernuari, bai oposizioari ere informazio gehiago izanez bere lana hobeto bete ahal izateko. Herritarrak parte hartzen zuten batzordeetan berriz, proposatu genuen kontseiluak osatzea eta osatzen diren bitartean lan bilerak egitea. Beraz, ez du etenik izango orain arte herritarrekin izan duen jardunak."*

## **ALKATETZAREN PROPOSAMENA**

### **INFORMAZIO BATZORDEAK ERATZEA ETA HAIEN ARAUBIDEA XEDATZEA**

7/1.985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 20.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, edo horiek baino gutxiago izanda, baina bere erregelamendu organikoak edo osoko bilkurak hala adostu badu, eta bere legedi autonomikoak esparru horretarako beste antolakuntza modu bat aurreikusten ez badu, osoko bilkuran egongo dira eztabaidatu beharreko gaien azterketa, informea edo kontsulta burutzea helburu duten organoak. Horrez gain, batzordeek, alkatearen, tokiko gobernu batzordearen eta eskuordetzak dituzten zinegotzien kudeaketaren segimendua ere eramango dute, osoko bilkurak dituen kontrol-eskumenak gorabehera.

Aipatutako arauan oinarrituta, Tolosako Udalak, 5.000 biztanle baino gehiago dituen udalerria denez, Udalaren informazio-batzordeak sortzeari ekin beharko dio.

Era berean, Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Araubideari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikulua errespetatuz, udalek, eratze-saioa egin ondoren, hurrengo hogeita hamar lanegunen barruan, alkateak egokien iruditzen zaizkion osoko bilkurako aparteko saiorako edo saioetarako deialdiak egin beharko ditu. Horren helburua, besteak beste, informazio batzorde iraunkorren sortze eta osaketan ingurukoak erabakitzea litzateke, berdin kontuen batzorde bereziaren kasuan.

Aipaturiko Erregelamenduaren 124.2. artikulua, bere aldetik, xedatzen du informazio batzorde iraunkorrak modu orokorrean osoko bilkuran eztabaidatu beharreko gaiak beraien artean banatzen dituztenak direla. Haien kopurua eta izendapena, bai eta korporazioaren agintaldian gerta daitekeen edozein aldaketa, alkatearen proposamenez osoko bilkuran lortutako akordioan erabakiko da. Ahal den heinean, azaldutakoa zerbitzu korporatiboak antolatzen diren eremu handien zenbaki eta izendapenari egokituko zaie.



TOLOSAKO  
UDALA

Orobat, Erregelamenduaren 125. artikulua adierazten du batzorde bakoitzeko osaketa Korporazioan ordezkariak duten talde politiko desberdinekiko proportzionala izan behar dela. Alkatea izango da komisio bakoitzeko lehendakaria.

Bestaldetik, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, organo osagarrien osaketa arautzerakoan, ondoko hau xedatzen du bere 29.2 artikuluan: *2.– Osoko bilkuran ordezkariak duten talde politiko guztiek izango dute organo osagarrietan parte hartzeko eskubidea, berariaz uko egin ezean, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-proportzioaren arabera. Udalaren osaera dela-eta ezinezkoa denean proportzionaltasun hori lortzea, postuak banatzea erabaki ahal izango da, halako eran non gehiengoaren osaera osoko bilkurako bera izango den; edo, bestela, organoa talde bakoitzeko kide-kopuru berdinarekin osatu ahal izango da, eta, erabakiak hartzeko, boto-sistema haztatua aplikatu.*

Komisioen eginkizunak 7/1985 Legean eta 2568/1986 Erregelamenduan jasotakoak izango dira:

- **Osoko bilkuran** eta gobernu batzordean (osoko bilkurak eskuordetutako eskumenak egikaritzean, urgentziako erabakiak hartu behar direnean izan ezik) **erabakiko diren gaien azterketa, informazio edo kontsulta** (Erregelamenduaren 123.1. artikulua).
- **Alkatearen eta bere gobernu-taldearen kudeaketaren jarraipena**, orokorrean osoko bilkurari dagokion goi-mailako kontrol eta fiskalizazioari kalterik egin gabe. (7/1985 Legearen 122.4.b) artikulua).
- Beraien erabakiz dakiten **gobernu batzordearen eta alkatearen**, edo lehendakariaren **eskumenekoak diren gaien inguruko informazioa luzatzea** (Erregelamenduaren 123.2. artikulua).
- Burutuko den lehen saioan, urgentziako kasuetan informazio batzordeak irizpena eman ez duen gaien gaineko **hartutako erabakien inguruko informazioa luzatzeko osoko bilkurari edo gobernu batzordeari exijitzea** (Erregelamenduaren 126.2. artikulua).
- Aurreko puntuan adierazitakoaren ildotik, informazio batzordeko edozein kidek proposatuta, **gaia hurrengo bilkurako eguneko zerrendan jasotzeko aukera**, hala, osoko bilkurak, bere kontrol eta fiskalizazio eginkizunen barnean, erabakitako urgentzia eztabaidatu dezan (Erregelamenduaren 126.2. artikulua).
- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea errespetatuz, **osoko bilkurak eskuordetzen dituenak** (7/1985 Legearen 122.4.c) artikulua).

Udalaren eskumenekoak diren esparru materialak udalerria osatzen duten hiru elementuekin lotura dutela oinarri hartuta: Udala, Herritarrak eta Lurraldea, Udalaren instituzio-jarduera hiru lan-esparruren arabera antolatu beharko litzatekeela Alkatezaren iritziz. Horien zenbakia elementuen berbera izan liteke, eta izendapenak: Antolakuntza Batzordea, Herritarren Batzordea eta Lurralde Batzordea.



TOLOSAKO  
UDALA

Batzorde informatiboetan oinarritutako halako instituzio-antolakuntza sinplifikatuarekin sail eta azpisail ezberdinen arteko koordinazioa eta lan-esparru bakoitzeko ezagutza eta sektoreko zein zeharkako komunikazioa sustatu eta bultzatuko litzateke, Alkatetza honek antolaturiko gainontzeko elementuekin (Koordinazio Taldea eta lan taldeak). Horrez gain, burokrazia murriztuko litzateke, bai eta kudeaketaren inguruko jarduera politiko zein teknikoaren eraginkortasuna eta efizientzia indartu ere. Azken finean, momentu bakoitzeko gizarte-errealitatera egokitzea lortuko litzateke.

Behin informazio batzorde iraunkorren zenbakia eta izendapena zehaztuta, eta haien eginkizun orokorrak aintzat harturik, bakoitzaren eskumenekoak diren esparru materialak zehaztea beharrezko dela iruditzen zaigu.

Batzorde bakoitzaren eskumenekoak izango diren esparru materialak zehazteko, lehendabizi legegileak haietzako ezartzen dituen eginkizun nagusiak azalduko ditugu:

- Osoko bilkuran erabakiko diren gaien azterketa, informazio edo kontsulta (Erregelamenduaren 123.1. artikulua).
- Alkatearen eta bere gobernu-taldearen kudeaketaren jarraipena (7/1985 Legearen 122.4.b) artikulua).

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17-1. artikulua zerrendatzen dituen udalaren eskumenekoak diren esparru materialak (37) udalaren instituzio-antolakuntza berriaren oinarri izango diren ((eta hiru batzordeen eraketa eragin duten: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurralde) lan-esparru bakoitzarekin lotzeari ekingo diogu.

Horietaz gain, 7/1985 Legeak, bere 116. artikuluan, eta 2568/1986 Erregelamenduak, bere 119.1.c) eta 127 artikuluetan kontuen batzorde berezia arautzen du, toki-erakundearen urteko kontuak aztertu eta diktaminatzeko xedearekin.

Azaldutakoa aintzat harturik, Alkatetzak Udalbatzaren Osoko Bilkurari hurrengo

### **PROPOSAMENA EGITEN DIO:**

**LEHENENA.-** Hiru batzorde informatibo iraunkor eratzea hurrengo izendapenekin:

- **ANTOLAKUNTZA BATZORDE IRAUNKORRA (Kontuen Batzorde Bereziari dagozkion funtzioekin).**
- **HERRITARREN BATZORDE IRAUNKORRA**
- **LURRALDE BATZORDE IRAUNKORRA**

**BIGARRENA.-** Batzorde Iraunkorrak eta Kontuen Batzorde Berezia ZAZPIZ zinegotziz osatzea, talde politikoen eta hauteskunde-elkarteen arteko hurrengo banaketarekin:



TOLOSAKO  
UDALA

- EAJ/PNV Talde Politikoko **HIRU** kide
- EH-Bildu Talde Politikoko **HIRU** kide
- PSE/EE Talde Politikoko **KIDE BAT**

**HIRUGARRENA.-** Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak bere 17-1. Artikuluan zerrendatzen dituen udalaren eskumenekoak diren esparru materialak Udalaren instituzio-antolakuntza berria oinarri duten lan-esparruei esleituko zaizkie. Lan-esparru horiek eragin dute hiru batzordeen eraketa: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea. Era berean, aipatu diren Batzorde Informatiboek aztertuko dituzte Tolosako Udaleko sailen eta azpisailen jarduera eta proposamenak, Alkatetza honek emandako 1208/2019 Dekretuaren arabera.

✓ **ANTOLAKUNTZA BATZORDEA (eta Kontuen Batzorde Berezia):**

✓ **HERRITARREN ARRETA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA**

- o UDATE zerbitzua antolatzea eta kudeatzea.
- o Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean ( 30).

✓ **OGASUNA**

- o Kontuen Batzorde Bereziari dagozkionak (Toki-erakundeetako kontabilitatea arautzen duen legedia errespetatuz, Korporazioko Osoko Bilkurak onetsi beharreko kontuak, aurrekontukoak eta aurrekontutik kanpo daudenak, azterketa, ikerketa eta txostena burutzea).
- o Udal zerbitzu publikoak eskaintzeko euskarri ekonomiko-finantzarioa eta administratiboa.
- o Tributuen kudeaketa eta bilketa.
- o Baliabide materialak: hornikuntza eta zerbitzuak.
- o Kontabilitate publikoa, eta kontuen aitortpena eta kontrola.
- o Ekonomia-finantzaren eta aurrekontuaren barne-kudeaketaren kontrola eta fiskalizazioa, bai eta kontabilitatearena eta diruzaintzarena.
- o Estatistika ekonomiko-finantzarioak.

✓ **ONDAREA**

- o Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat ( 28).

✓ **GIZA-BALIBIDEAK**



TOLOSAKO  
UDALA

1. Giza baliabideak: hautaketa, lan-harremanak, ordainsarrietatik zein formaziotik eratorritakoa.
2. Herritarren arreta zerbitzu integralaren antolakuntza eta funtzionamendua.
- o Udal-zerbitzu publikoak eskaintzeko lege-, ekonomia-, finantza- eta administrazio-laguntza.

✓ **KONTRATAZIOA**

- Udaleko kontratazio-jardunbideak izapidetzea, eta horiei buruz irizpideak esleitzea Udaleko sailei.

✓ **UDALTZAINGOA**

- Antolatzea eta kudeatzea babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea ( 1).
- Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea ( 2).
- Udaltzaingoa.
- Antolatzea eta kudeatzea espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna ( 5).
- Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa.

✓ **HERRITARREN BATZORDEA:**

✓ **GIZARTE-EKINTZA**

- o Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea (13).
- o Diru-sarrereren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea (14).
- o Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea (37).

✓ **KONTSUMOA ETA OSASUNA**

- o Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea (10).
- o Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea (11).
- o Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere (12).

✓ **KULTURA**

- o Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea (20).



TOLOSAKO  
UDALA

✓ **KIROLA**

- o Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea (19).

✓ **HEZKUNTZA**

- o Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen (23).

✓ **GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUAREN SUSTAPENA, MERKATARITZA, AZOKAK, TURISMOA**

- o Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak (25).
- o Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena (34).
- o Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea (22).

✓ **EUSKARA**

- o Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idaztea, onartzea eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera (26).

✓ **BERDINTASUNA**

- o Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea (27).

✓ **GAZTERIA**

- o Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea (36).

✓ **KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZA**



TOLOSAKO  
UDALA

- Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea (30).

✓ **LURRALDE BATZORDEA:**

✓ **MUGIKORTASUNA**

- o Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa —garraio bidea edozein dela— antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerrriaren barruan egiten bada osorik (18).
- o Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu —motordun zein bestelako— eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte (32).
- o Trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea (4).

✓ **INGURUMENA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA**

- o Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea (17).
- o Efizientzia energetikoaren aldeko politikak sustatzea, programatzea, antolatzea eta kudeatzea (8).

✓ **OBRAK ETA ZERBITZUAK**

- o Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integrarean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa (15).
- o antolatzea eta kudeatzea argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak, eta zerbitzu horiek ematea (16).
- o Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea (24).
- o Udalerrriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne) (31).

✓ **HIRIGINTZA**





TOLOSAKO  
UDALA

- o Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea (3).
- o Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa (7).
- o Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta (8).
- o Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina (9).
- o Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea. ( 33 )

**LAUGARRENA.-** Udalbatza osatzen duten udal talde bakoitzeko bozeramaileei eskatzea informazio batzordeetako beraien ordezkarien —titularrena zein ordezkoena— adskripzio nominatibo zehatza. Ordezkoen kasuan, izendatutakoek ordezkatu ahal izango dute izendatutako edozein titular.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzio botoak:** Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** informazio batzordeak eratzea eta haien araubidea xedatzea.

**4. Onartzea udal korporazioko kideen dedikazioaren araubidea.**      **4. Aprobación de la normativa de la dedicación de los/las miembros de la Corporación.**

Alkateak proposamena batzarkideei azaldu ondoren , honako partehartzeak izan dira:

- ... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Honen inguruan udaletxeko historia egin nahi nuke, agian egokiena ez izan arren. Kontutan hartzea nahi nuke txosten honetan jartzen duen bezala oposizioa taldearekin adostutakoa da. Aurreko legegaldian hiru*



TOLOSAKO  
UDALA

*alderdien arteko lanketa bat egin zen eta adostasun batera iritsi zen, nahiz eta ofizialtasunik ez zitzaion eman adostasun hori. Lanketa honek helburua zuen denbora iraungo zuen sistema bat jartzea bai gobernuko eta bai oposizioko edo beste taldeetako zinegotzien dedikazioak, hau da, liberazioa eta soldatak arautzea, ez aurkitzeko legealdietako hasieretan hau eztabaidatzeko egoeran. Adostasuna lortu zen eta nahiz eta horrek ekonomikoki aurrekontuetan ze ondorioak ekarriko zituen ez zen islatu, adostasun betetzeko egia ez sistema horren oinarriak ez zirela aldatuko pentsa zitekeen. Egoera aldatu egin da, talde bakoitzeko zinegotzi kopuruak aldatu egin dira, antolaketa ere bai aldatu egin da eta adostasun hori ere bai aldatu egin dela aurkitzen gara. Bai, mantendu egin dira EUDELeko irizpideak jarraitzea soldatei dagokienez, baita ere mantendu dira EHBILDUko bi liberatuena baina Gobernuak liberatuei dagokionez kategoria ezberdinak aldatu egin dira eta orain gobernuak bost liberatu izango ditu eta ez lau adostu zen bezala. Hor dago aurreko legealdian landutakoa erabili egin da, oraingoa bere aldaketekin onartzeko. Baldin eta, kopuruak betetzeko baldin badira eta aurrekontuetako plenoan esaten zen bezala bermerik ez baldin bada behar da akordioak beteko direla jakiteko, jakin badakigu eta konturatu gara hurrengoetarako bermeak beharko ditugula akordioak lortzen direnean. Zintzotasunez osoz esan dezaket egoera beste bat izango balitz EHBILDUko taldeak onartuko lituzkeela aurreko legealdian onartutako oinarriak bere horretan. Aurreko EHBILDUko udal taldeak egindako lanari errespetuz, bai udaletxe barruan eta bai udaletxetik kanpo egindako lanari errespetuz ez diogu ezezkoa emango baina ezta baiezkoa ere.”*

... Alkatea:”Aipatutako kontuen gainean, alde batetik aurreko legealdia lan bat egin zela egia da. Aurreko legealdiaren hasieran nahiz eta gu geuk gobernu taldeak gehiengo absolutua izan egokien ikusten genuen erabakia hartzeko pentsatu genuen ordainsarien eta liberatuen kasuan komeni zela adostasunez erabakitzea kontuak. Bestela herritarrak ez duelako oso ondo ulertzen zer gertatzen ari den eta demagogiarako bide handia ematen duelako eta demagogia horrek ez duelako epe luzean gauza onik ekartzen. Ikusi besterik ez dago hainbat udaletan egindako ibilbidea. Pentsatzen genuen adostasunez atera behar zirela gauzak eta erabaki genuen, kasu balitz eta beharrezkoa balitz, aurreko legealdian puntu horiek ez mugitzea eta lasaitasun gehiago ekarriz gero gai horiek adosten joatea hurrengo legealdi baterako. Eta hor adostu ziren puntu batzuk, tartean zuk aipatu duzun bezala, Kristina, EUDELeko akordioak errespetatzea eta Gipuzkoa Foru Aldundian onartzen den Arau Foralaren kopuruak onartzea era batera esateko. Hori adostu zen baino erabaki hori aipatu duzulako ez zela ofiziala egin erabakia, erabaki hori hurrengo udal gobernuak hartu behar zuen. Egia da, zuek bai Ogasun batzorde batean eta baita ere pleno batean publikoki onartu zenuela eta aktan jasota dago. Hala ere, guk aipatu genuen berez eta legez eta horrela delako, ardura hori legealdian dagoen gobernuari tokatzen zaiola legealdi hasieran, antolaketa plenoan hartu behar duen erabakiari. Orduan sentitzen dut Kristina baina uste dut ez duzuela hitza bete, eta hori aipatu beharra daukat. Beste alde batetik, eta egin duzun aiparekin udal gobernuak bost liberatu dauzkala eta lau eta hori da proportzionaltasun bat mantentzea adostu zelako. Hori hitz egiten da hauteskundeak pasa aurretik eta hauteskundeak pasa aurretik ez da jakiten emaitzak zein izango diren eta akordio gobernuak lotzen dira emaitzen ondoren, horrek ez du zentzurik, hori zentzugabekeria bat da. Hemen egon da akordio gobernu bat baina izan zitekeen beste bat, Podemoseko zinegotzia izan balitz akordioa beste bateko izan zitekeen eta beste egoera batean egon ginateke. Beste udaletxe batzutan gertatu



TOLOSAKO  
UDALA

*eta hartu diren erabakiak hartu diren bezala. Noski errespetatzen dugula zuen erabakia baina egia esan pixka bat deskolokatzen dit.*"

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *"Herritarrak aipatu dituzu, herritarrak ulertuko duten edo ez duten ulertuko,. Ez dugu ezezkoa ematen lan handia egin duelako EHBILDUK herritarren ulertu dezaten lan baldintza onak izan behar dituela udal lan jarduna egoki bat egin ahal izateko. Eta demagogiarena ez dakigu nondik nora datorren. Izan ere adostasunak, akordioak legealdi batean hartzen badira eta legealdi hasieran hartzen badira aurreko legealdian egindako akordioak ere ere bai, bete egin behar dira. Eta onartu genuena eta adostu genuena ez da orain onartzen ari dena."*

... Alkateak: *"Ikuspegi ezberdinak dauzkagu, beraz . bozketara pasako gara."*

## ALKATETZAREN PROPOSAMENA

### GAIA: UDAL KORPORAZIOKO KIDEEN DEDIKAZIOAREN ARAUBIDEA

#### AURREKARIAK

Alkatetza honek, 2019ko uztailaren 12an emandako 1208/2019 Dekretuan, bestek beste, ondoko erabaki hauek hartu zituen:

- Tolosako Udaleko erakundean hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua abian jartzea: **Antolakuntza, Lurraldea eta Herritarrak.**
- Lan-esparru bakoitzeko koordinazio politikoaren zinegotzi arduraduna izendatzea.
- Hainbat zinegotziren esku jartzea Alkatetza honi dagozkion eta aipaturiko Dekretuan zehaztutako eskumenak, eta delegazio haien araubide juridikoa xedatzea.

Une honetan, udal antolakuntzari buruzko Osoko Bilkurak onartu behar du alkatearen zein berak izendaturiko zinegotzi delegatuen dedikazioaren araubidea, eta xede horrekin aurkezten da proposamen hau.

Halaber, udal gobernuak eta oposizioko taldeak adostu ondoren, EH-Bilduko bi zinegotziren dedikazioaren araubidea onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari, hark ebatz dezan..

#### AZTERKETA JURIDIKOA

- Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietan emandako ebazpen administratiboan testuan agertu behar da ebazpena delegazioz emanak direla, eta, delegatu gabeko gaietan, alkateak emandako ebazpenaren balio bera izango dute.
- Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertzeke errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Kasu guztietan alkate-lehendakariak ebatziko ditu aipaturiko errekurtsuak.
- Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasuna duenean, Alkatetzak, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak, hartarako berriaz ebazpenik eman gabe.

**HIRUGARRENA.-** Xedatzea delegazio horiek eskatzen duten dedikazioa, horri dagokion araubide ekonomikoa eta gainontzeko xedapenak Udalbatzaren Osoko Bilkurak ebatziko dituela, antolaketari buruzko bilkura egiten duenean.

**LAUGARRENA.-** Dekretu honen berri dagokien zinegotziei ematea, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotzi bakoitzak onartu duela ulertuko da, baldin eta Dekretu hau jakinarazi eta hurrengo bi eguneko epean ez badu ezer adierazten haren aurka.

**BOSGARRENA.-** EH-Bildu taldeko zinegotzia den Kristina Pelaez Errazkinek orain arte izan duen dedikazioa mantentzea, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituenak, bere 33. artikuluan xedaturiko eskubidea bermatuz.



TOLOSAKO  
UDALA

**SEIGARRENA.-** Dekretu honen berri ematea Udalbatzari egingo duen lehen Osoko Bilkuran, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Udaleko web orrian.

**ZAZPIGARRENA.-** Dekretu hau Dekretu-Liburuan transkribatzea.

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **D) ANTOLAKUNTZA LAN-ESPARRUAK ETA ALKATETZAREN DELEGAZIOAK.**

Alkatetzak 2019ko uztailaren 12an emandako 1.208 Dekretuaren berri eman zaie bertaratutakoei. Hitzez hitz honela dio:

### **ALKATETZA DEKRETUA**

**1.208/2019**

**OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.**

### **IKUSIRIK**

*2019-2023 epealdirako Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen du izaera orokorreko eta izaera bereziko eskuduntzak hainbat zinegotziren esku uztea, 2019ko ekainaren 17an egindako Dekretua osatuz.*

*Kontuan izanik Alkatetza honek eskuordetu ditzakeela bere eskumenak, betiere ez badira eskuordetu ezin litezkeen eskumenak.*

*Kontuan hartuta, udal gobernu taldeak, gainontzeko udal taldeekin gaia azertu ondoren, antolaketa eredu berri bat garatu nahi duela legegintzaldi honetan, eta Alkatetzari dagokiola Udalaren zerbitzu administratiboak egituratzea eta antolatzea udal funtzionamendurako egokia bermatzeko, Tolosako Udalaren erakundea hiru lan-esparru handitan egituratzea deritzot: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak, Udaleko sail eta azpisailak koordinaziorako eta plangintzarako hiru arlo horietan bilduz.*

*Halaber, lan-esparru bakoitzak barne izango ditu Udalean diharduten eta dagokion esparruarekin lotura duten sailak eta azpisailak, Dekretu honen xedapen erabakigarrian jasotzen denaren arabera. Sail bakoitzak zinegotzi arduradun bat izango du, eta haren esku geratuko dira Alkatetza honek eskuordetutako ahalmenak, Dekretu honetan xedaturikoak.*

*Azkenik, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 27.3 artikuluan xedaturikoa kontuan harturik, Alkatetzak eskuordetuko dizkie bere eskumeneko hainbat ahalmen sailletako buruei, karrerako funtzionarioak direnean, edo udal idazkariari, bestelako kasuetan.*



TOLOSAKO  
UDALA

### **LEGEDI APLIKAGARRIA**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituen (21.1a, 21.3, 23.4 eta 75. artikulua).
- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena (9. artikulua).
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (25.1, 25.2, 25.3, 25.7, 27., 32.1, 32.2, 33.3 artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atala).
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Udal Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena (13. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria).

Horiek horrela, alkate honek, ondoko hau

### **EBATZI DU**

**LEHENENGOA.-** Tolosako Udalean abian jartzea hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua: **Antolakuntza, Lurraldea eta Herritarrak**. Lan-esparru bakoitzak barne izango ditu Udalean diharduten eta dagokion esparruarekin lotura duten sailak eta azpisailak, denen arteko koordinaziorako eta plangintzarako aipatutako hiru arloetan bilduz.

Hiru esparru horiek, batetik, Udalaren gaur egungo antolamendu-egitura osatzen duten sail/azpisail guztiei dagozkien eta horien jarduera osatzen dute, eta, bestetik, bertan txertatuko dira gobernu taldeak legegintzaldi honetarako aurreikusten dituen aldaketak, guztia jarraian adieraziko den moduan uztartuz.

**BIGARRENA.-** Ondorengo kide hauei esleitzea Lan-Esparru bakoitzeko koordinazio orokorrari dagozkion funtzioak arlo horietako arduradun politiko eta zinegotzi delegatu bilakatuz:

**Antolakuntza:** Xabier Balerdi Tolosa.

**Lurraldea:** Begoña Tolosa Mendia.

**Herritarrak:** Nerea Letamendia Beloso.

Lan-esparru bakoitzeko zinegotzi delegatua izango da bere arloko koordinatzailea eta arduradun politikoa, baztertu gabe koordinatzaile horiek nahiz, jarraian adieraziko den moduan, eskumenak eskuordetuta izango dituzten gainerako zinegotziek sail edo azpisail horietan zein gai zehatzetan izan ditzaketen gainerako eskuordetzak.

**HIRUGARRENA.-** Lan-esparru bakoitzak barne dituen sailak eta azpisailak onartzea. Halaber, ondorengo eskuordetze hauek egitea jarraian zerrendatzen diren sailetan/azpisailetan edo zerbitzu





TOLOSAKO  
UDALA

eta gai zehatzetan eta hemen aipatzen diren zinegotzien alde (gaien titularra Alkatea denean ez da eskuordetzerik izango):

### **1. Antolakuntza Lan-Esparrua: Xabier Balerdi Tolosa.**

- *Administrazio Orokorreko Saila. Ondorengo azpisailak izango ditu:*
  - *Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea: Xabier Balerdi Tolosa.*
  - *Giza Baliabideak : Xabier Balerdi Tolosa.*
  - *Informatika: Xabier Balerdi Tolosa.*
  - *Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua (UDATE): Xabier Balerdi Tolosa.*
- *Ogasuna eta Finantza Administrazioa: Begoña Tolosa Mendia.*
- *Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Saileko ondoko arloa:*
  - *Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa: Xabier Balerdi Tolosa.*

### **2. Lurralde Lan-Esparrua: Begoña Tolosa Mendia**

- *Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Sailak ondorengo azpisailak izango ditu:*
  - *Hirigintza: Egoitz Sorozabal Iturain.*
  - *Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa<sup>1</sup>: Patxi Amantegi Zubiria.*
  - *Obrak eta Zerbitzuak: Patxi Amantegi Zubiria.*

### **3. Herritarren Lan-Esparrua: Nerea Letamendia Belloso**

- *Gizarte Zerbitzuetako Saila: Olatz Peon Ormazabal.*
- *Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Sailak ondorengo azpisailak ditu:*
  - *Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Sustapena: Begoña Tolosa Mendia.*
  - *Turismoa, Merkataritza eta Azokak: Nerea Letamendia Belloso.*
- *Euskara eta Hezkuntza Sailak ondorengo azpisailak ditu:*
  - *Euskara eta Euskaltegia: Xabier Balerdi Tolosa.*
  - *Hezkuntza Politika: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Kirolak: Jose M<sup>a</sup> Villanueva Tellería*
- *Kultura, Festa eta Gazteria Sailak ondorengo azpisailak ditu:*

<sup>1</sup>Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrendan jasotako sailaren izena aldatzeko prozedura abian jarri behar da.



TOLOSAKO  
UDALA

- *Kultura (Musika Eskola, Bandak eta Udal Biblioteka barne) eta Festak: Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.*
- *Gazteria: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Komunitatea eta Gobernantza<sup>2</sup>: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Berdintasuna: Olatz Peon Ormazabal.*

**LAUGARRENA.-** *Eskuordetza horiek ahalmen hauek barne hartuko dituzte, dagozkien jarduera eremuetan:*

**4.1. Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak:**

- *Alkatea eta Udala ordezkatzeari bere delegazioaren eremuan.*
- *Dagokion saileko/azpisailleko zerbitzuen zuzendaritza politikoa, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, saileko/azpisailleko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko dekretuak ematea.*
- *Udal gobernuak ezartzen dituen ildoen arabera, politika sektorialen diseinu, proposamen eta zuzenketa.*
- *Saila/azpisaila zuzentzea eta udal organo eskudunari proposatzea egitura edo egituren aldaketa. Era honetan, eskuordetzaren esparrutik kanpo gelditzen dira Sail eta Azpisailen antolakuntza eta egituraren inguruko ebazpenak. Baita, ebazpen honen betearazpenean, delegatuen artean ebazpenei buruz gerta daitezkeen gatazken ebazpena ere.*
- *Bilerak eta harremanak izatea dagokion batzorde informatzaileko lehendakariarekin eta saileko eta arloko gainerako zinegotzi delegatuekin eta arduradun teknikoekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko, nagusiki arloko koordinazio bileren baitan.*
- *Udalak uneoro bultzatzen dituen zeharkako ekimenak dagokion sail/azpisailak garatzearen ardura politikoa eta ekimen horien garapena sail/azpisailen bultzatzea, indarreko legedia betetzeko helburuarekin nahiz etengabeko hobekuntzaren politikaren baitan, helburuen betetzea, modernizazioa eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatuz.*
- *Dagokion sailerako/azpisailerako Giza Baliabideetako (GGBB) azpisailari giza baliabide berriak (finkoak nahiz aldi baterakoak) proposatzerakoan edo giza baliabide horien baldintzen aldaketaren bat proposatzerakoan, saileko/azpisailleko zinegotzi delegatuaren beharrei buruzko txostena egitea, arduradun teknikariarekin batera.*
- *Saileko/azpisailleko teknikari arduradunarekin batera dagokion aurrekontu proposamena egitea, dagokion helburuak zehaztuz eta horiek ebaluatuz Ogasun Sailetik finkatutako irizpideei jarraituz. Zentzu berean, sailerako/azpisailerako edozein aldaketa planteatuz gero. Baita ordenantza fiskalei dagokienez, sailarekin/azpisailarekin lotutako edozein aldaketa/berrikuspenen kasuan ere; etab.*

2Udaleko Lanpostuen Zerrenda aldatuko da deitura honen arabera



- *Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai-zerrendan saileko/azpisaileko gaiak sartzeko proposatzea.*
- *Proposatzea alkateari sailarekin/azpisailarekin lotutako akordioak hartzeko eskuordetuak ez dauden eskumenei dagozkien kasuan.*
- *Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere jardueraremuarekin lotutako gaiekiko batzordearen iritzia eskatzea, Udalbatzarraren eskumena izan gabe ere, gaiaren garrantziaren baitan batzordearen iritzia ezagutzea egokia dela irizten duenean dagokion akordioa hartu aurretik.*
- *Dagokion batzorde informatzaileko lehendakariari proposatzea bere delegazio eremuarekin lotutako gaiekiko berri ematea batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek horien inguruan erabakitzen dutenean.*
- *Bere sailari/azpisailari dagozkion ordenantza, araudi eta erabakiak betearaztea.*
- *Kontratu txikiak: bere delegazioko saileko/azpisaileko gaietan bere osotasunean kontratu txikien espedienteak arteztea, zenbatekoa edozein dela ere. Kontratu txikien kasuan beraz kontratazio organoa izango da. Eskumen hau egikaritzeko indarreko legediak eta udalak onartutako gainerako araudi eta irizpideak jarraitu beharko dira. Kasu guztietan, zinegotzi delegatuak egiaztatuko du kontratuaren xedea ez dela aldatzen kontratazioko arau orokorrak ez aplikatzeagatik, eta kontratistak ez dituela sinatu kontratu txiki gehiago urte berean, bakarka edo multzoan, 15.000 €-ko kopurua gainditzen duten hornidura edo zerbitzu kontratuetan, eta 40.000 €-ko kopurua obretan.*
- *Obra proiektuak edo zerbitzuen edo horniduren memoriak, proiektuak edo baliokideak onartzea, zinegotzi delegatua kontratatzeko eskuduna denean, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.*
- *Gainerako kontratuak: kontratu txikietatik kanpo gainontzeko organoek sustatu behar dituzten kontratazio espedienteen hasiera dagokion saileko/azpisaileko zinegotzi delegatuaren proposamenaren baitan burutuko da, edozein kasutan Ondare eta Kontratazio Azpisailarekin koordinatuz.*
- *Gainerako kontratuak: Kontratazio-organok -Alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak- esleitutako kontratuen inguruko fakturen edo obra ziurtagirien onarpena, kontratuaren kitapenari dagokiona izan ezik, beti ere sailak edo azpisailak sustaturiko kontratuen kasuan. Hilero, onartutako fakturen zerrenda igorriko dio dagokion kontratazio-organori.*
- *Dirulaguntzak, bekak, sariak eta beste laguntzak: eskuordetutako sailari/azpisailari dagozkion gaiekin lotuta, bai beste erakundeek onartutako deialdiak direla-eta Udala onuradun izan daitekeen espedienteak bere osotasunean izapidetzea, bai Udalak deitutako dirulaguntza, beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurak, norgehiagokan nahiz zuzenean ematen direnak izanda ere.*
- *Dirulaguntzak emateko prozeduren eskumen eskuordetzearen baitan, bai Udala eskatzaile eta bere kasuan onuradun bezala diharduenean, bai hirugarrenen eskaeren aurrean Udalak esleitzen dituztenean, ondorengoak hartuko dira eskuordetuztat: sinatzea izapidetako edo behin betiko dokumentuak, ahalmena gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne. Bereziki, beste batzuen artean,*



TOLOSAKO  
UDALA

ondorengoak: dirulaguntza eskaerak aurkeztearekin lotutakoak dagokien proiektu/memoriekin etab. batera, eta zuriketarako dokumentazio guztiarekin batera, dirulaguntzen lerro bakoitzaren oinarriak eta deialdiak onartzea; dirulaguntzaren inguruko ordainketa-betebeharra baimendu, disposatu eta aitortzea; zuriketan baino lehen ordainketa aurreratuak egiteko baimena; deialdi bakoitzari dagokionez Balorazio Batzordea osatzea eta kideak izendatzea; dirulaguntzaren zuriketa egiaztatzen duen txosten teknikoari oniritzia ematea; orokorrean dirulaguntzak egiaztatzeko eta dirulaguntzak itzultzeko prozeduren inguruko eskuduntzak; egoki bada, hautaketa-prozesua hutsik uztea eta dirulaguntza zuzenetarako hitzarmenak onartu eta sinatzea. Hala ere, erabakitzen bada organo iraunkor bat sortzea Udaleko sail edo azpisail guztietatik onartzen diren dirulaguntzen deialdietarako, alkateak eskumena izango du balorazio batzordea eratzeke eta kideak izendatzeko, eskabideak aztertu eta balora ditzaten. Eta baita beharrezkoa balitz deialdi bateratuak bultzatze aldera alkateak onartuko lituzke oinarri orokorrak. Beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurari dagokionez, eskuordetzeak erreferentzia egingo dio izapideko edo behin betiko dokumentuak sinatzeari, delegazioa gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne.

- Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere sailari/azpisailari atxikitakoak direnean eta betiere 60.000 € + BEZa baino gutxiago denean.
- Jabari publikoan edo, bere kasuan, udal eraikin itxian aisialdiko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, etab. etako jarduera burutzeko eta berau garatzeko materiala uzteko eta erabiltzeko baimena ematea, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan, beti ere saileko eta azpisailetako funtzionario arduradunen esku ez dagoen kasuetan.
- Festa programa, jaialdi eta gainerako edozein motatako ekintzen eta jardueren programazioa, planifikazioa eta onarpena, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan, duten gastu-mugaren barruan.
- Zehapen-espeditenteak hasi eta ebaztea, bere eskuordetze-eremuari dagozkion gaietan.

#### **4.2. Gobernurako sailetako/azpisailetako, zerbitzuetako eta gaietako eskuduntza espezifikokoak (4.1. atalean zehaztutako komunez gain):**

4.2.1. Idazkaritza Orokor, Kontratazio, eta Ondare Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):

- Udal biztanleen errolda: UDATE Zerbitzuaren bitartez bideratzen diren zuzeneko egintzen kalterik gabe, biztanleen errolda kudeatzeko beharrezkoak diren bestelako egintzak (jarraibideak, etab) zuzenean idazkari orokorrari dagozkionak salbu, eta biztanleen erroldaren kudeaketarekin lotuta onartu beharreko ebazpen guztiak (alta bereziak, ofiziozko altak, etab). Baita sinaduraren eskuordetzea ere erroldako ziurtagirietan (fede publikoaren baitan Idazkaritza Orokorreko titularraren sinadurari oniritzia eman).
- Idazkaritzaren menpeko erantzukizun politiko eta teknikoko erregistroak: Udalbatzako Kideen Interesen Erregistroa, Erregistro Orokorra (sarrerak eta irteerak), Udal Intereseko elkartearen erregistroa, etab.



TOLOSAKO  
UDALA

- *Datu pertsonalen babesaren kudeaketari dagozkion ebazpenak, alkatearen eskumenekoak.*
- *Hauteskundeekin lotutako espedienteak, hauteskunde mahaiaren mahaikide izateko zozketa izan ezik.*
- **Alkatearen gain geratuko dira** *Antolakuntza Lan-Esparrutik bultzatutako edozein hobekuntza antolaketarekiko zeharkako eragina duenean batzorde informatzaileetan, hiru arloetan eta sail/azpisail guztietan, mandatu-plangintzarekin, eta honekin zerikusia dutenekin lotutakoak, urteko araudi planarekin eta antzekoekin lotutakoak, udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzordeko bilkuren espedienteen izapidetzearekin lotutakoak.*
- *Ardura politikoa kontratazio alorreko barne araudiaren garapena/egokitzapena, kudeaketa eta kontrola bultzatzeko (kontratu txikietarako eskuliburua, kontratazio mahaiaren araudia, etab), baita sail/azpisailentarako kontratazio alorrean jarraibideak eta lagungarri suertatu daitezkeen normalizatutako dokumentuen txantiloiak egitea (baldintza ekonomiko-administratiboen agiriak, baldintza teknikoan agiriak, klausula sozialen etab.en ereduak eta bestelako batzuk).*
- *Udal ondarearen kudeaketa eta eguneratzea bultzatzea.*
- *Udalaren ondasunen inbentario orokorraren osaketa, zuzenketa eta eguneraketa bultzatzea.*
- *Izapideko egintzak, ebazpenen onarpena eta baita kontratuak formalizatzea ere ondorengo espedienteekiko eta betiere alkatearen eskumenekoak direnean: udal garaje plazen alokairua edo erabilera, administrazio emakidako erregimenaren bidez utzitakoak, udal etxebizitzaren alokairuak, lagapenak edo besterentzeko baimenak, eta udal lokalen lagapenak.*
- *Ondare Azpisailarekin lotutako aurreko espedienteen kudeaketarako eta kontrolerako onartu behar diren izapideko egintzak eta ebazpenak (giltzen kudeaketa, aseguruak, Udalak jasandako kalteen alorrean sortutako ezbeharrak tramitatzea, etab).*
- *Hirugarren batek Udalari erreklamaturako ondare erantzukizuneko espedienteak eta udal ondarearen alorreko kalte-galeren erreklamazio espedienteak: espediente hauek bere osotasunean bideratzea, bere izapideko egintzetan nahiz ebazpenei dagokienez.*

#### 4.2.2. Giza Baliabideetako Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):

- *Azpisailaren zuzendaritza politikoaz arduratzea giza baliabideen kudeaketa egokia bultzatuz horretarako dagozkion tresnak erabiliaz (aurrekontuaren I. kapituluaren planifikazioa eta kontrola, Lanpostuen Zerrenda, langileen plantilla, organigrama, postuen funtzioen eskuliburua, lan poltsak, giza baliabideen arrazionalizazio planak, etab.).*
- *Batzordeburuekin bilerak eta harremanak izatea, hala nola gainerako zinegotzi delegatuekin eta zerbitzu ezberdinetako buruekin, elkarren berri izan eta koordinatzeko giza-baliabideen inguruan.*



TOLOSAKO  
UDALA

- Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 10ean onarturiko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planak xedaturiko neurrien exekuzioaz arduratzea.
- Informatzea langile berriak (finkoak edo denboraldikoak) hartzeko proposamenak, dagokion saileko/azpisaileko arduradun politikoak zein teknikoak beharren inguruko txostena aurkeztu ondoren.
- Lan-arriskuez prebenitzeko hartu beharreko neurri guztiak hartzea, bai osasunaz arduratzeari dagokionez, bai lan arriskuen prebentzioari dagokionez (segurtasuna, higiena, ergonomia eta psikologia aplikatua). Segurtasun eta Lan Osasunaren Komitearen buruzagitza. Lan istripuak ikertzea. Aurrekoak betetzeko izapideko egintza guztiak nahiz ebazpenak onartzea.
- Langileriaren lan-egutegiaz eta lanaldiaz informazioa ematea alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak onartu aurretik.
- Opor-plana finkatzea sindikatu-ordezkaritzarekin ados jarrita.
- Lizentziak, baimenak eta bidezko kalte-ordainak ematea.
- Hiru urtekoak errekonozitzea.
- Soldata-aurrerapen eskaerei buruzko informazioa ematea.
- Funtzionario eta gainontzeko udal langileen jabetza-hartzea, eta lan-kontratuak sinatzea, beti ere Giza Baliabideetako Azpisaileko teknikari arduradunaren laguntza izango du GGBBtako zinegotzi delegatuak.
- Tramitezko agiriak sinatzea: Udal langileei dagozkien gaiak (enpresa-ziurtagiriak, hautaketa prozesuetarako epaimahaiko deialdiak, etab.), beti ere eskubideak aitortzeko edo norbanakoen egoera juridikoak errekonozitzeko ebazpenak ez badira.
- Lan-diziplina betetzen den ikustea.
- Gizarte-ordezkariekin harremanak izatea: informazioa, kontsultak eta negoziazioak, azken hauek alkatearekin batera.

#### 4.2.3. Erregistro eta Informazio Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):

- — Aurreko legegintzaldian emandako aldaketak ikusirik, eta nagusiki UDATE arreta zerbitzua abian jartzera bideratua egon denez, nahiz ez soilik horretara, garrantzi berezia izango du Azpisaileko zerbitzuak zuzentzea, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, Saileko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko ebazpenak hartzea eta dagokion jarraibideak eta plangintzak onartzea, ez soilik UDATE Zerbitzuaren etengabeko hobekuntzara bideratuak, baizik eta, beste batzuen artean, bereziki legegintzaldi honetan administrazio elektronikoa txertatu eta orokortzea erakundean (espediente elektronikoaren kudeaketa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa...). Testuinguru honetan, Azpisailearen programazioa, antolamendua eta kudeaketa aztertu beharko dira eta proposatu organo eskudunari egitura bere horretan mantentzen den edo aldatzen den, eta baita, bere kasuan, Azpisailearen eskuduntzen



TOLOSAKO  
UDALA

*berrikusketa proposatzea ere. Eta guztiaren ondorio gisa berekin ekarriko du, bere kasuan, udal organigrama eta gainerako dokumentuen eguneraketa (besteak beste, sailen/azpisailen eskuduntzen dokumentua). Eta azterketa prozesu horretan guztian garrantzi berezia izango du Informatika Azpisailarekin koordinatzeak eta aztertzeak bi azpisailen arteko balizko bateraketaren egokitasuna bien arteko ezinbesteko koordinazioa dela eta, baterako lana egitearren administrazio elektronikoa, moderno eta kalitatezko baten alde.*

#### *4.2.4. Informatika Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- Aplikatu eta ezarri behar diren bitarteko teknologiko eta informatiko nahiz berrikuntza tekniko eta komunikatibo guztiak eta baliabideak arrazionalizatzeko eta egokiago eta koordinazio handiagoarekin planifikatzeko, zinegotzi-delegatuak aztertu eta proposatu beharko ditu Udaleko azpiegitura informatikoaren programazio, antolamendu, kudeaketa eta egiturako ereduak, eskumena duen organoak ebatzi dezan.*
- Udaleko Informatika eta Telefonia azpiegituraren kudeaketa eta administrazioa.*
- Segurtasun informatikoaren kudeaketa, orokorrean eta Norberaren Datuak Babesteko Legeari eta Segurtasun Eskema Nazionalari dagokionez; etab.*
- Administrazio elektronikoaren arloan indarreko araudiak xedatzen dituen betebeharrak bete ahal izateko baliabideen plangintza diseinatzea eta ezartzea.*

#### *4.2.5. Ogasun eta Finantza Administrazioko Sailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Begoña Tolosa Mendiak):*

- Udaleko zerbitzu ekonomikoak zuzentzea.*
- Udaleko aurrekontuen proiektuen prestaketan, aldaketetan eta zerga-ordenantzen berrikuspenean laguntzea eta bultzatzea.*
- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak agintzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.*
- Zergak, errentak eta eskubide ekonomikoak bildu eta ikuskatzea; zehazki, hauek:*
  - Zerga-errola onartzea.*
  - Likidazioak onartzea eta baliogabetzea.*
  - Zerga eta tasen ordainketak atzeratzea eta zatikatzeko eskaerak ebaztea.*
  - Berraztertze errekurtsoak ebaztea.*
  - Erreklamazioak ebaztea.*
  - Hirugarrenen erreklamazioak ebaztea.*
  - Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena ematea.*
  - Udalari ondasunak esleitzeko ebazpena ematea.*



TOLOSAKO  
UDALA

4.2.6. *Udaltzaingo (Herritarren babesaren eta Babes Zibila) Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *Herritarren babesaren edo segurtasunaren gaiaren inguruan sortutako foro desberdinetan parte hartzea eta segurtasun gaiari dagokion jarraipena egitea.*
- *Gai horretan eskumena duten gainontzeko gorputz polizialekin eta Administrazio publikoekin koordinatu eta lankidetzan jardutea.*
- *Zehapen-prozedurak: hiritarren segurtasuna, txakurrak, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko araudia, etab.*
- *Besteak: salmenta ibiltariko postuak kontrolatu eta jarraipena egitea, arma baimenak, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak, etab.*

4.2.7. *Ingurumena Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi Amantegi Zubiriak):*

- *Lurzoru urbanizaezinaren kudeaketa eta bertan hirigintza-diziplina kontrolatzea.*
- *Jasangarritasuna: energia-jasangarritasuna, hondakinak eta natura baliabideak. Ingurumena babestea.*

4.2.8. *Obra eta Zerbitzuetako Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi Amantegi Zubiriak):*

- *Azpisaileko zerbitzu publiko propioen eta azpikontrataturakoen planifikazioa, kudeaketa eta jarraipena.*
- *Auzoak: harremanak izatea dauden edo izan litezkeen auzo elkarte eta kolektiboekin, hain zuzen, haien beharrak (azpiegiturak, etab.), ahal den neurrian, ase ahal izateko.*
- *Proiektuak, obrak eta azpiegiturak (udal obra txikiak egitea, etab).*

4.2.9. *Mugikortasuneko zerbitzu bereziari dagokionez, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi amantegi Zubiriak):*

- *Herriko trafiko-fluxua, aparkaleku-arazoa, etab. aztertu zerbitzuaren teknikari arduradunarekin batera, eta proposamenak egin.*
- *Trafikoari buruzko zehapen-prozedurak eta mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko txartelak.*
- *Bidaiarien garraio publikoa (bidaiarien hiriko zerbitzuak eta auto-taxiaren zerbitzua).*
- *Ibilgailua bide publikoan abandonatzeagatik bideratu beharreko espedienteak.*
- *TAO eta garabi zerbitzuak ikuskatzea.*





TOLOSAKO  
UDALA

4.2.10. Bereziki aipatzen ez diren gainerako sailetan/azpisailetan indarrean dagoen izapideen manualera bideratzen da, Dekretu honen 4.1. puntuan jasotako ahalmenekin.

**4.2.11. Delegazio Berezia: Dokumentuen sinaduraren eskuordetzea:** Xabier Balerdi Tolosa, Antolaketako zinegotzi delegatua. Dokumentuen sinaduraren eskuordetzea ondorengo jardun-eremuan:

- *Ziurtagiriak: fede publikoaren baitan Idazkaritza Orokorreko titularraren sinadurari oniritzia ematea.*
- *Jakinarazpenak: oro har, agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak.*
- *Agerpenak: Alkatetzaren aurrean egin beharrekoak zinegotzi delegatuenera pasako dira.*

Bai 4.1. atalean zehaztutako eskuduntza komunak garatzeko bai 4.2. atalean zehaztutakoak zinegotzi delegatu bakoitzari dagokion sail/azpisail, zerbitzu eta gaietan eskuordetuzat ulertuko da izapideko zein behin betiko dokumentuak sinatzea, delegazioa gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen proposamenak eta dekretua barne.

**4.3. Sailetako arduradun teknikoei -karrerako funtzionarioei- eskuordetzen zaizkien ahalmenak:**

- *Orokorrean, jabari publikoa okupatzeko baimenak edo erreserbak ematea:*
  - *Kaleko salmenta, postuak barne, azokak izan ezik.*
  - *Instalazio xumeak: mahaiak, standak, etab.*
  - *Leidor aretoaren erabilera ohikoa.*
  - *Zerkausiko meriendak.*
  - *Orokorrean, zerbitzu teknikoen txostenik behar ez duten erabilerak.*
- *Orokorrean: dagokien saileko komunikazioak izenpetzea, tramiteko gaiak direnean: ofizioak, dokumentazio osagarria aurkezteko errekerimenduak, kontsuluten erantzunak, beste administrazioei egindako komunikazioak (ebazpenen jakinarazpenak ez direnean), etab.*
- *Udaltzaingoko Ofiziala:*
  - *Belena patioa erabiltzeko baimenak edota erreserbak.*
  - *Abere arriskutsuen baimenak*
  - *4. kategoriako armak edukitzeko baimena*

**BOSGARRENA.- Erabakitako Delegazioen Araubidea honako hau izatea:**

- *Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.*



TOLOSAKO  
UDALA

- Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organo baten esku utzi.
- Eskuordetzaren bidez harturiko ebazpenak alkateak –jatorrizko eskumenaren titularra– emanak bailiran hartuko dira eta, ondorioz, hura jakinaren gainean egonda, exekutagarriak dira eta zilegitasun-presuntzioa izango dute.
- Zinegotzi delegatuek erabilitako eskuduntzen berri emango diote alkateari beharrezkoa den maiztasunarekin, eta gutxienez astean behin.
- Izan daitezkeen gai garrantzitsu edo gatazkatsuetan erabaki bat hartu aurretik, zinegotzi delegatuak alkatearekin kontsultatuko du.
- Ordezkaritzak ez du epemugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, Alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuek espresuki bere karguari uko egin arte, eta, kasu guztietan, legealdia amaitu arte.
- Alkatetza honek, eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumenak edozein unetan bereganatu ahal izango ditu, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Eskuordetutako agintariek emaniko ebazpenak, ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira.
- Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietan emandako ebazpen administratiboen testuan agertu behar da ebazpena delegazioz emanak direla, eta, delegatu gabeko gaietan, alkateak emandako ebazpenaren balio bera izango dute. Beraz, harturiko erabakien azalpen zatian ondorengo testua ipiniko da egoeraren berri ematearren: **«Horregatik guztiagatik, Udal honetako alkateak emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta»**.
- Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Ogasun Sailekoak eta kontratu txikiak izan ezik.
- Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasuna duenean, Alkatetzak, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.
- Saitetako teknikari arduradunen eskuetan jarritako ahalmenen araubide juridikoari dagokionez, hemen xedaturikoa aplikatuko da analogiaz, kasua denean.

**SEIGARRENA.** - . Eskuordetza hauek ondorengo egunetatik aurrerako eragina izatea:

1.) Nerea Letamendia Bellosoren eta Patxi Amantegi Zubiriaren kasuan, Alkatetza honek, 2019ko ekainaren 17an emandako Dekretuan, haien dedikazioa onartu zuen 2019ko ekainaren 15eko datatik aurrera, ondorengo sailetan:

- **Obrak eta Zerbitzuak, Mugikortasuna eta Ingurumena:** Patxi Amantegi Zubiria.
- **Turismoa, Merkataritza eta Azokak:** Nerea Letamendia Belloso.

Aipaturiko Dekretuan, besteak beste, ondorengo hau xedatu zen: Delegazio hauek eskatzen duten dedikazioa, eta hari dagokion araubide ekonomikoa eta gainontzeko xedapenak Udaltzatzen Osoko Bilkurak ebartziko ditu, antolaketari buruzko bilkura egiten duenean.



TOLOSAKO  
UDALA

2.) Gainontzeko zinegotzi delegatuen kasuan, Alkatetzak emandako eskuordetza indarrean sartzea 2019ko irailaren 1etik aurrera.

**ZAZPIGARRENA.-** Komunitate eta Gobernantzaren Sailaren eta Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun, Ingurumen eta Trantsizio Energetikoko Azpisailaren deitura berriak direla eta, Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda aldatzeko prozedurari hasiera ematea.

**ZORTZIGARRENA.-** Dekretu honen berri dagokien zinegotziei ematea, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotzi bakoitzak onartu duela ulertuko da, baldin eta haren aurka ez badu ezer adierazten Dekretu hau jakinarazi eta hurrengo bi eguneko epean.

**BEDERATZIGARRENA.-** Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Iragarki Taulan jartzea.

**HAMARGARRENA.-** Dekretu hau Dekretuen Liburuan transkribatzea.

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira .

## **E) LAN TALDEEN ERAKETA ETA OSAKETA.**

Alkatetzak 2019ko uztailaren 15ean emandako 1.223 Dekretuaren berri eman zaie bertaratutakoei. Hitzez hitz honela dio:

### **ALKATETZA DEKRETUA**

**2019/1223**

**OLATZ PEON ORMAZABAL** Tolosako Udaleko alkateak, betez 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.a) artikuluan xedaturikoa, eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Tokiko Erakundeak arautzen dituenak, bere 25.7. artikulua eta 1.c) Lehenengo Xedapen Gehigarriak, eta

### **IKUSIRIK**

Legealdi berri bati hasiera eman zaiola eta, era berean, kudeaketaren koordinazioa, eraginkortasuna eta efizientzia sustatzea helburu duen udal organoen antolaketa berritzeko prozesu oso bati hasiera eman zaiola.

Era horretan, 2019ko uztailaren 12an emandako 1.208/2019 Dekretuan, Alkatetza honek, besteak beste, hiru lan-esparruetan oinarritutako antolakuntza-eredua abian jartzea ebatzi zuela, Antolakuntza, Lurralde eta Herritarrak izendaturiko Lan-Esparruak, Udaleko sail eta azpisail guztien jarduera antolatzeko asmoz.



TOLOSAKO  
UDALA

Hausnartze horren baitan, Alkatetzak lan esparru horiek koordinatuko dituen talde bat izatea derrigorrezkotzat jo duela. Halaber, lan esparru bakoitzeko politikari zein teknikariz osaturiko beste talde bat eratzea beharrezkotzat jo duela Alkatetza honek, administrazio-unitate edo sail ezberdinen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzeko.

### **KONTUAN HARTURIK**

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetzaren eskumena dela "udal gobernu eta administrazio zuzentzea".

Bestaldetik, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Toki Erakundeei buruzkoak, bere 10. artikulua 1. atalean, udalerriei onartzen diela bere burua antolatzeke ahalmena, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean xedatutakoari jarraituz: "udalerriek berek ezarriko dituzte beren eskumenak baliatzeko behar dituzten antolamendua eta administrazio- eta instrumentu-egiturak, horrela, gobernu eta administrazio onaren printzipioa benetan gauzatzeko, eta baliabide publikoak finantzen jasangarritasunaren aldetik modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko".

Azkenik, Toki-Erakundeen Antolakuntza- eta jardura-araudia onartu duen 2568/1986 Errege-dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarriak honela dioela: "Alkateari dagokio, orokorki, Udaleko zerbitzu administratiboak egituratzea eta antolatzea", eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.7 artikulua eta Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 1.c) puntuak, alkateari, bere eskumenen esparruan, dekretu edo jarraibide gisa antolaketari buruzko arau mailako xedapen orokorrak emateko eskubidea aitortzen diola.

### **EBATZI DU:**

**LEHENA.-** Udal antolaketa-egitura barruan, Koordinazio Talde bat sortzea, alkateak zuzenduta, eta antolatutako Lan Esparru bakoitzeko (Antolakuntza, Herritarrak eta Lurralde) lan-talde bat sortzea.

**BIGARRENA.-** Koordinazio Taldea hurrengoek osatzea:

- Alkatetzak.
- Lan-esparru bakoitzean eskuordetza orokorra duten zinegotziek: Xabier Balerdi Tolosak, Nerea Letamendia Bellosok eta Begoña Tolosa Mendiak.
- Lan-esparru bakoitzeko erantzukizun teknikoko koordinatzaileek: Begoña Garmendia Vazquezek (ordezkoa: Paulino Alonso Eraso), Jone Miner Aginagak (ordezkoa: Aitor Etxaide Agirre), eta Alaine Izagirre Lopezek (ordezkoa: Garikoitz Lekuona Izeta).

**HIRUGARRENA.-** Lan-esparru bakoitzeko taldeak hurrengoek osatzea:

- Lan-esparru bakoitzean koordinazioaren ardura duen zinegotziak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.
- Lan-esparruari esleituriko sailen eta azpisailen gaineko eskuordetzeak dituzten zinegotziek, Alkatetza honek emandako 1.208/2019 Dekretuaren arabera.



TOLOSAKO  
UDALA

- Zuzendaritza edo Koordinazio Taldeko dagokion arduradun teknikoak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.
- Jarduera-esparruko sail eta azpisail bakoitzeko arduradun teknikoak.

**LAUGARRENA.-** Hauek izatea Koordinazio Taldearen eginkizunak: Udaleko administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, kontsultatzea, proposatzea, informatzea eta ebaluatzea, baina ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango, ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

Zehazki, aipaturiko taldearen eginkizun zehatzak hurrengokoak izango dira:

- A) Udal sail orokorretako gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- B) Sail desberdinetan komunak diren gaiak koordinatzea.
- C) Alkatetzari aholkuak ematea berezko bere eskumenak erabiltzean, Gobernu Batzordeari dagokion aholkularitzaren kalterik gabe.
- D) Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetzari berri ematea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- E) Alkatetzak egokitzat joko dituen beste gai orokorretan laguntzea.
- F) Hilabeteko kudeaketa-txostena prestatzea.

**BOSGARRENA.-** Hauek izatea lan-esparru bakoitzeko taldeen zereginak: lan-esparruko administrazio kudeaketaren antolakuntza, koordinazioa, aholkularitza, kontsulta, proposamena, informazioa eta ebaluzioa.

Zehazki, aipaturiko lan taldeen egitekoak hurrengokoak izango dira:

- Esparruko gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- Esparrua osatzen duten sail eta azpisailletako gaiak koordinatzea.
- Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetzari berri ematea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- Alkatetzak egokitzat joko dituen beste gai orokorretan laguntzea.
- Hilabeteko esparruaren kudeaketa-txostena prestatzea.

**SEIGARRENA.-** Taldeek finkatzea bilerak noiz egingo diren eta funtzionatzeko beste alderdi batzuk. Subsidiarioki, aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-erregimena.

**ZAZPIGARRENA.-** Dekretu honen berri ematea Udaltzari hurrengo osoko bilkuran, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira .



TOLOSAKO  
UDALA

## **F) BESTE ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA.**

Alkatetzak 2019ko uztailaren 16an emandako 1.227 Dekretuaren berri eman zaie bertaratutakoei. Hitzez hitz honela dio:

### **ALKATETZA DEKRETUA**

**2019/1227**

**OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, betez 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedaturikoa, eta**

### **IKUSIRIK**

*Batetik, 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, bere 38. artikuluan, ondoko hau xedatzen duela: "Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:....."c) Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno".*

*Bestetik, udal antolakuntza xedatuko duen Udalbatzaren Osoko Bilkurak Tolosako Udalak beste erakundeetan dituen ordezkariak ebatzi behar dituela, beti ere bere eskumenari dagozkion izendapenak badira, eta erakundeetako eratze- edo antolatze-tituluetan Tolosako Udalari eskumen generikoa esleitzen bazaio, Alkatetzari dagokiola ahalmen hori, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipaturiko artikulua alkatearen ahalmenak arautzen ditu, eta horien artean: s) Las demás que expresamente le atribuyan la leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales. Ikusirik, bestalde, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo administratiboaren eskumena utziezina dela.*

*Azkenik, erakunde ezberdinetako Estatutu eta Barne Araudiak,*

### **EBATZI DU:**

**LEHENA:** Tolosako Udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ondorengo ordezkariak izendatzea:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>KIDE-KOPURUA</b>
<b>ARALARREKO PARKE NATURALAREN</b>	<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>



TOLOSAKO  
UDALA

<b>ADMINISTRAZIOKO PATRONATUA</b>	
<b>TOLOSALDEA GARATZEN SA</b>	<i>Olatz Peon Ormazabal</i>
<b>APATTAERREKAKO INDUSTRIGUNEA SL</b>	<i>Olatz Peon Ormazabal</i>
<b>TOLOMENDI</b>	<i>Patxi Amantegi Zubiria</i>
<b>ZAZPITURRI</b>	<i>Olatz Peon Ormazabal</i>
<b>UR PARTZUERGOA</b>	<i>Olatz Peon Ormazabal</i>
<b>SAMANIEGO ESKOLAKO KONTSEILUA</b>	<i>Joseba Koldo Ormazabal Lopez</i>
<b>TOLOSAKO PAPER INSTITUTUAREN KONTSEILUA</b>	<i>Joseba Koldo Ormazabal Lopez</i>
<b>TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA</b>	<i>Olatz Peon Ormazabal</i>

**BIGARRENA.-** Xedatzea izendatuek onartuko dituztela esleitutako karguak eta aitortuko dutela, batetik, betetzen dituztela kasuan kasuko baldintzak, eta bestetik, ez daudela sartuta indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoieta. Hala ere, izendapen horiek jakinarazi eta hogeita lau orduko epean interesatuak ez badu ezer adierazten, onartutzat emango dira egindako izendapenak eta atal honetan adierazitako baldintzen onespena.

**HIRUGARRENA.-** Hartutako ebazpenak erakunde eta zinegotzi interesatuei jakinaraztea.

**LAUGARREN.-** Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **G) TOKIKO GOBERNU BATZARRAK ESKURATUTAKO AHALMENAK.**



TOLOSAKO  
UDALA

Alkatetzak 2019ko uztailaren 16an emandako 1.228 Dekretuaren berri eman zaie bertaratutakoei. Hitzez hitz honela dio:

### **ALKATETZA DEKRETUA**

**2019/1228**

**OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosa Udaleko alkate-lehendakariak**, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.3 eta 23.2.b) artikuluetan xedatzen duenaren arabera, eta ondoko hauek

### **KONTUAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 20. artikuluan xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarra ezinbesteko organoa dela 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan. Aipaturiko Legearen 23. artikulua TGBren osaketa eta araubide juridikoa arautzen ditu, eta ondoko zereginak ematen dizkiola: alkateari laguntzea bere eskumenak gauzatzeko, eta alkateak nahiz beste udal organoren batek eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako eskumenak gauzatzeko.

**BIGARRENA.-** Alkatetza honek, 2019ko uztailaren 2an emandako Dekretuan, ondoko ebazpen hauek hartu zituela, besteak beste:

**“LEHENA.-** Ondoan adierazten diren zinegotziak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kide gisa izendatzea: Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Begoña Tolosa Mendia, Xabier Balerdi Tolosa eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**BIGARRENA.-** Xedapen honen berri ematea zinegotzi interesatuei eta Udalbatzari, egingo duen lehenengo osoko bilkuran, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Udaleko web orrian.”

**HIRUGARRENA.-** 2568/1986 Errege-Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki-Erakundeen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duenak, bere 41.3 eta 52.1 eta 2, eta 53. artikuluetan ondoko hauek xedatzen dituela:

- Alkateari dagokiola Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- Alkateak izendaturiko zinegotzien kopuruak ezin duela gainditu korporazioko kideen heren bat, bost Tolosako udalaren kasuan.
- Kideen izendapenak eta kargu-uzteak plenoari jakinarazi behar zaizkio egiten duen aurreneko bilkuran, interesatuei jakinarazi behar zaizkio, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki taulan argitaratu behar direla.
- Izendatzeko eta kargua uzteko ebazpenek eragina izango dutela hurrengo egunetik aurrera, besterik ez bada xedatzen.
- Tokiko Gobernu Batzarrak egikaritutako alkateak eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskuordetutako eskumenak, eta eskuordetze honen araubidea 43, 44 eta 51 artikuluetan xedaturikoa izango da.





TOLOSAKO  
UDALA

**LAUGARRENA.-** Hori dena ikusirik, Dekretu honetan jasotzen direla, alde batetik, legeriak Tokiko Gobernu Batzarrari onartzen dizkion aholkularitza-zereginak, eta, bestetik, Tolosako Alkatezako eskuordetutako ahalmenak,

### **EBATZI DU**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak legeriak onartzen dizkion alkatearen aholkularitza-lanak burutzea, Alkatezako hala proposatzen dionean.

**BIGARRENA.-** Alkatezako eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### **1. Alkatezaren eskumeneko kontratazio eta ondarearen kudeaketari buruzko gaiak:**

- a) Alkatezari dagozkion kontratazio eta emakidak: espediente onartzea, lizitazioari hasiera ematea -hala denean-, esleitzea, eta kontratuaren kitapena onartzea, ondorengo kasuetan:
  - Kontratuak: 600.000 €-tik gorako balio zenbatetsia izatea.
  - Gainontzeko espedienteak: lizitazio-tipoa, edo urteko kanona (kasu bakoitzean) 600.000 €-ko kopurua gainditzea.
- b) Obra-proiektuak onartzea, baldin eta haiek kontratatzeko ahalmena badu eta aurrekontuetan jasota badaude.
- c) Ondasun eta eskubideak eskuratzeko gaineko bestelako irabazizko negozio juridikoak (erosketa, errentamendua...), eta ondarea besterentzeko espedienteen hasiera onartzea, haien balioak sarrera arrunten % 5 gainditzen badu.
- d) Lokalak doan lagatzea, edo jabari publikoko lokalen erabilera baimentzea, urtebeteko epea gaindituz gero.

#### **2. Kudeaketa ekonomikoari dagozkion gaiak:**

- a) Udal aurrekontua egiteko ildoak onartzea.
- b) Urte anitzeko Aurrekontu Plangintza onartzea.

#### **3. Giza Baliabideetako kudeaketari dagozkion gaiak:**

- a) Urteko lan Eskaintza Publikoa onartzea, Udalbatza Plenoak onarturiko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilaren arabera.
- b) Karrerako funtzionarioak hautatzeko zein lanpostu finkoak hornitzeko Oinarriak onartzea.



TOLOSAKO  
UDALA

- c) *Finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsariak ezartzea, goragoko mailako lanari dagokion ordainsaria izan ezik.*
- d) *Langileei zehapenak ezartzea, salbu langile lan-kontratudunak kaleratzea eta funtzionarioak zerbitzutik kentzea.*

#### **4. Hirigintzaren alorrean:**

- a) *Aurri espedienteak ebaztea, berehalako aurrikoak izan ezik.*
- b) *Hirigintza-kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak onartzea.*
- c) *Garapeneko Plangintza xehatuak hasieraz, eta behin-behineko izaeraz onartzea.*
- d) *Hirigintzako arau-hauste larri eta oso larrien ondoriozko zigorrak ebaztea.*

**5. Lankidetzaren hitzarmenak:** *Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzaren hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, eta 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.*

#### **6. Desadostasunak:**

*Eskuordetu gabeko eta Alkateak baliatzeko erreserbatuta dauden gaiak, beti ere eskuordetu daitezkeenak, Gobernu Batzarrarengan delegatu ahal izango dira honako kasu hauetan:*

- *Gai berari buruz egindako txosten teknikoak kontraesankorrak izatea.*
- *Proposamen politikoaren eta txosten teknikoaren artean desadostasunak egotea.*

**HIRUGARRENA.-** *Tokiko Gobernu Batzarrak ondoko funtzionamendua izatea:*

- *Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak Alkateak aretoan astero egingo dira, asteartetan, goizeko 11:15ean. Dena den, Alkateak, arrazoituz, ahalmena izango du egunez eta orduz saioa aldatzeko.*
- *Ohiko nahiz aparteko bilera deialdiak hogeita lau ordu aurretik egingo dira. Ohiko bilurako deialdia elektronikoki egingo zaie batzordekideei. Aparteko eta presako bileren kasuan, gai zerrendari ekin aurretik, bileraren premia erabaki behar du Batzarrak, eta erabakia gehiengoak hartzen duenekin hartuko da.*
- *Deialdiarekin batera banatuko dira gai zerrenda eta Alkatearen ebazpen proposamenak.*
- *Korporazioko zinegotzi guztiek jasoko dute bilera aktaren kopia bat, onartu eta gero.*
- *Gaien espediente osoa eta amaituta Idazkaritzaren eskuetan egon behar du deialdiko egunaren bezperan, goizeko 10:00etan.*



TOLOSAKO  
UDALA

- *Batzordeari gastu proposamena egiten bazaio, nahitaezkoa izango da Kontuhartzaitzak egindako aurrekontu-izendapena aurkeztea, proposamenaren bideragarritasuna egiaztatu ahal izateko.*
- *Deialdia egin eta Tokiko Gobernu Batzarra elkartu bitartean, zerrendako gaien espedienteak batzordekideen eskura egongo dira Idazkaritzan.*
- *Batzordekideen gehiengo absolutuak agertu behar du Tokiko Gobernu Batzarra eratzeko. Quorum-ik ez badago, bigarren deialdian eratuko da. Hura handik ordubetera egingo da, eta hiru kiderekin nahikoa izango da Batzarra eratutzat jotzeko.*
- *Tokiko Gobernu Batzarraren bilera deliberatzailea bada, ezin izango du erabakirik hartu. Eztabaiden emaitzak aktan jasoko dira.*
- *Gobernu Batzarraren bozketa bidez hartuko ditu erabakiak, Udalbatzak, alkateak edo legeriak emandako ahalmenez baliatzen denean.*
- *Udalbatzak emandako ahalmenez jarduten duenean, dagokion batzorde informatzailearen irizpena eduki behar du alde zuzenetik. Kasu honetan publikoak izango dira Tokiko Gobernu Batzarreko bilkurak*
- *Alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko bileretara deitu ahal izango ditu batzordekide ez diren zinegotziak eta udaleko langileak, informazio edo argibide gehiago eduki ditzaten erabakiak hartzeko orduan.*

**LAUGARRENA.-** *Delegazioaren araubide juridikoa ondokoa izatea:*

- *Alkateari dagokio organo honen jarduera koordinatzea eta delegaturiko eskumen arazoak ebaztea.*
- *Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta Tokiko Gobernu Batzarrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organoren esku utzi.*
- *Eskuordetzaren bidez harturiko ebazpenak alkateak –jatorrizko eskumenaren titularra– emanak bailiran hartuko dira eta, ondorioz, hura jakinaren gainean egonda, exekutagarriak dira eta zilegitasun-presuntzioa izango dute.*
- *Delegazioak ez du epemugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, Alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte eta, kasu guztietan, legealdia amaitu arte iraun egingo du.*
- *Alkatetza honek, eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumenak edozein unetan bereganatu ahal izango ditu, egokitzen hartzen duen zabaltasunez. Eskuordetutako agintariek emaniko ebazpenak, ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira.*
- *Tokiko Gobernu Batzarrak emaniko ekintzak berraztertze errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena organo berberari dagokio.*

**BOSGARRENA.-** *Dekretu honen berri ematea Udalbatzari egingo duen hurrengo bilkuran, eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udaleko web orrian.*



TOLOSAKO  
UDALA

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira .

**Jarraian, batzorde informatiboak eratu gabe daudela ikusita eta bilkurako gai zerrendan sartu direla diktaminatu gabe dauden ondorengo gaiak, ebatzi beharrekoak, batzar kideek bozkatu dute gai hauek aztertzea eta ebatzea.**

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** ondorengo gaiak tratatzea eta batzorde informatiboak egingo duen lehen bileran honen berri ematea.

- 9. 2019/11 kreditu aldaketarako espedienteak, kreditu gehigarrien modalitatean. Hasierako onarpena.**      **9. Aprobación inicial de la modificación de crédito 2019/11, en la modalidad de crédito adicional.**

Partehartzeak

- ... Begoña Tolosa Mendia, EAJ-PNV zinegotziak azalpenak eman ditu proposatzen den kreditu aldaketari buruz. Kreditu gehigarrien proposamena honako hau da:

*Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:*



TOLOSAKO  
UDALA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.226.02.912.00 2019	PROKOLO GASTUAK. GOBERNU ORGANOAK.	15.000,00	10.000,00	25.000,00
1 0100.226.99.912.00 2019	BESTE ZENBAIT GASTU. GOBERNU ORGANOAK	18.000,00	12.000,00	30.000,00
1 0100.226.03.924.00 2019	PUBLIZITATEA. PARTAIDETZA	25.000,00	80.000,00	105.000,00
1 0100.227.07.924.00 2019	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. PARTAIDETZA	52.988,70	20.000,00	72.988,70
1 0300.227.07.920.00 2019	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. ADMINISTRAZIO OROKORRA	16.900,00	168.150,00	185.050,00
1 0300.220.03.920.20 2019	MATERIAL INFORMATIKOA	0,00	31.220,00	31.220,00
1 0300.227.11.920.20 2019	INFORMATIKA ZERBITZUAK. INFORMATIKA	124.000,00	43.600,00	167.600,00
1 0300.626.01.920.20 2019	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK. INFORMATIKA	40.000,00	33.600,00	73.600,00
1 0300.644.01.920.20 2019	APLIKAZIO INFORMATIKOAK	0,00	11.508,00	11.508,00
1 0400.624.01.130.00 2019	IBILGAILUAK. UDALTZAINGOA	0,00	42.000,00	42.000,00
1 0700.601.06.153.20 2019	ASFALTATZE OBRAK	0,00	435.700,00	435.700,00
1 0700.601.07.414.00 2019	LANDA GARAPENA	216.419,58	23.900,00	240.319,58
1 0700.622.02.920.33 2019	FERIALEKUKO OBRAK.	0,00	120.952,00	120.952,00
1 0700.625.99.153.40 2019	EKIPAMENDUA. ZERBITZU OROKORREKO LANTALDEA	34.000,00	25.650,00	59.650,00



TOLOSAKO  
UDALA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0700.629.01.153.20 2019	BESTELAKO INBERTSIOAK. BIDE PUBLIKOAK	0,00	18.150,00	18.150,00
1 0900.226.99.320.00 2019	JARDUERAK. HEZKUNTZA	0,00	10.000,00	10.000,00
1 0800.226.06.338.00 2019	JARDUERA SOZIO-KULTURALAK. JAIK	358.755,00	32.550,00	391.305,00
1 0800.227.04.334.12 2019	KONTRATUAK. MUSIKA ETA TXISTULARI BANDA	140.215,00	6.000,00	146.215,00
1 0800.625.03.330.00 2019	ALTZARIAK ETA EKIPAMENDUA. KULTURAKO ADMINISTRAZIOA	18.138,92	5.900,00	24.038,92
1 1000.226.07.341.00 2019	KIROL JARDUERAK. KIROLAK	39.500,00	6.000,00	45.500,00
1 1000.622.02.342.40 2019	INBERTSIOAK ERAIKINETAN. KIROLDEGIAK	0,00	171.600,00	171.600,00
1 1100.227.07.431.10 2019	ESTUDIO ETA LAN TEKNIKOAK. FERIA ETA AZOKAK	0,00	18.150,00	18.150,00
1 1100.227.99.431.00 2019	KONTRATUAK. MERKATARITZA	35.750,00	18.150,00	53.900,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.134.667,20</b>	<b>1.344.780,00</b>	<b>2.479.447,20</b>

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2019	ALTXORTEKIKO GERAKINA	1.344.780,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>1.344.780,00</b>

#### KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *"Proposatuz zaitzaigun pleno honetara ekartzea kreditu aldaketa hauek nahiz eta diktaminatu gabe egon. Berehalako gastu batzuk onartu behar zirelako udalak ematen dituen zerbitzuak ez kaltetzeko. Baiezkoa eman genion proposamen horri, udala eratu gabe egonik ez genuelako makinaria fortzatu nahi, hau da, hamabost egunetan bi pleno eta batzordea egitea ez genuen behartu*



TOLOSAKO  
UDALA

*nahi. Kreditu aldaketa hauek pleno honetara onartu ondoren jaso dugu informazioa baina konturatu gara batzuk urgentziazko direla baina iruditzen zaigu beste batzuk gehiago landu egin behar zirela behin batzordeak eratu ondoren. Jakin badakigu ere bai Antolaketa batzordean honen berri emango dela baina bai eskatu nahiko genuke beste batzordetan ere, sail edo azpisail bakoitzari dagokion kreditu aldaketaren berri hori, eta ez bakarrik kreditu aldakaren horren berri, baizik proiektu edo egitasmo horren berri ematea garbi eduki dezagun zertan oinarritzen den kreditu aldaketa hau eta zergatik zegoen hainbeste beharra urgentziaz tratatzeko. Iruditzen zaigunez batzuk urgentziako ez direla eta informazio gehiagoen beharreatik abstenitu egingo gara.”*

... Alkatea: *“Azken urte hauetan, eta lehenago ere bai, udal aurrekontuak duen egitura berezi horregatik, hau da, sarrerak eta gastuak bat egin behar dutela, kreditu aldaketa erabiltzen da finantziarioaren tresna egokia gisa remanenteak gero erabili ahal izateko. Bat uda aurretik eta bestea ondorenean. Aurten hauteskundeak eta udal gobernuaren aldaketa dela eta, orain arte aukerarik ez da izan eta gure ustetan kreditu aldaketa hori orain egitea urgentziazkoa baino derrigorrezkoa zen jarduera normal baterako. Proposatu genizuen sinplifikatzera aldera pleno batean egitea, eta onartu zenuten eta hori ezkertzekoa da baina era guztietara egingo zen beharrezkoa dela ikusten dugulako. Aukera hau ez du Tolosako udalak bakarrik hartu, Anoetako udalak ere bere antolakuntza plenoan kreditu aldaketa sartu du. Azkenean udalak egin behar duelako bere eskura dauden erreminta guztiak erabiliz ahalik eta zerbitzu gehiena emateko eta ez jarri beharrak prozeduraren mesedetan. Hori izan da asmoa, ulertzen dugu korporazio berria da, egia da, eta ez dago batere eragozpenik sail eta azpisail bakoitzean informazio emateko kopuru bakoitza zergatik sartzen den kreditu aldaketan eta zein den asmoa. Noski, informazio guztia izango duzue.”*

## **KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019/11 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2019/11 espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Jarduneko kontuhartzaileak egindako txostena aztertu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzarak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau



TOLOSAKO  
UDALA

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.**- Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2019/11 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	455.820,00
6	INBERTSIO ERREALAK	888.960,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>1.344.780,00</b>

### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	1.344.780,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.344.780,00</b>





TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarrena.-** Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzio botoak:** Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **hasieraz onartu du** kreditu gehigarrien modalitateko 2019/11 kreditu aldaketarako espedientea.

**10. 2019ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamena. Hasierako onarpena.** **10.Aprobación inicial de la modificación del anexo de subvenciones de 2019.**

Partehartzeak:

- ... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV) : *“Kasu honetan, gertatzen dena da deialdian aurkitzen den hamahirugarren puntuan daukagula bederatzigarren kreditu aldaketa, transferentziazko kreditua, Kulturatik eta Gizarte Zerbitzuetatik jaso den eskaera partida batetik bestera pasatzeko, 4 kapitulutik diru-laguntzatik biltzen zuena 2.na. Laugarren kapitulutik aldaketa egiteak dakar atzetik diru-laguntzaren eranskina aldatzea, udalbatzaren onespena behar duen tramite teknikoa.”*
- ... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Uzturre egoitzan ematen duen zerbitzu berri baten ingurukoa da. Guk dauzkagu kezka da zerbitzu hori kudeatzeko modua egokia den Uzturre egoitzaren bidez ematea. Lehen esan bezala honen inguruko informazio guztia edukitzea nahiko genuke, azken finean, zerbitzu berri bat delako eta zerbitzu hori horrela mantentzeko balorazio bat egoki ikusiko genuelako dirulaguntza hori aldatu aurretik.”*
- ... Alkatea: *“Suposatzen dut Kristina gogoratu duzuela Gizarte Zerbitzuetako batzordean aipatu genuela gai hau. eta bertan aipatu zen zeintzuk ziren zerbitzu hau Uzturre egoitzan emateko mesedeak, beste baliabideak aprobetxatzen zirelako.*



TOLOSAKO  
UDALA

*Tekniko berak jarri zuen mahai gainean berarentzat egokiena eta zerbitzu oso inportantea da eta gainera pentsatzen dugu arrakasta handia izango duela, kokapena egokiena Uzturre zela, aurreko legealdian ez bazinen egon ulertuko nuen baina uste dut aipatutako gaia.”*

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Aipatu zen eta batzorde horren bertan ere aipatu genuen Uzturre egoitza enpresa pribatu bat izanik beste modu bat ez ote zen aztertu zerbitzu publiko baten bidez emateko, hori zen gure desadostasuna horren inguruan, eta iruditzen zaigu da zerbitzu horrek balorazio txosten bat beharko lukeela hori bere horretan onartzeko.”*

... Alkatea: *“Proposatzen dut balorazio hori egitea, zerbitzu aztertzea, baina ez dugu prozesua geldituko. Ez dugu zerbitzua zalantzan jarriko. Aurrera egingo dugu.”*

2019ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenak hauek dira:

Partida	Onuraduna  IZENA	Helburua	Behin-betiko	Tipoa
			Aurrekontua  2019	
0700.422.01.414.00	TOLOMENDI	Funtzionamendu gastuak, larunabateko azoka	30.000,00	izenduna
0700.422.01.414.00	TOLOMENDI	Funtzionamendu gastuak, larunabateko azoka	4.305,00	izenduna
0500.471.01.231.92	UZTURRE ASISTENTZI GUNEA	Hitzartutako zerbitzuak	152.000,00	izenduna
0500.471.01.231.92	UZTURRE ASISTENTZI GUNEA	Hitzartutako zerbitzuak	-16.500,00	izenduna
0800.481.01.338.00	ELKARTEAK	San Joan	4.100,00	
0800.481.01.338.00	ELKARTEAK	San Joan	-4.100,00	

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, honako hau

### ERABAKI DU

**Lehena.-** Dirulaguntzen eranskinaren aldaketei hasierako onarpena ematea, aldatutako dirulaguntza horiek honela utziz:



TOLOSAKO  
UDALA

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin-betiko	Tipoa
	IZENA		Aurrekontua 2019	
0700.422.01.414.00	TOLOMENDI	Funtzionamendu gastuak, larunabateko azoka	34.305,00	izenduna
0500.471.01.231.92	UZTURRE ASISTENTZI GUNEA	Hitzartutako zerbitzuak	135.500,00	izenduna
0800.481.01.338.00	ELKARTEAK	San Joan	0,00	

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2019ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Abstentzio botoak:** Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **eman dio hasierako** 2019ko dirulaguntzen eranskinaren aldaketari.



TOLOSAKO  
UDALA

**11. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. 11. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.**

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61. artikulua arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldiko faktura data dute eta 2019an jaso ziren, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2019-01-15	2018-12-31	0700.601.04.153.20 2019	PREVICILAN SLU	1812-00095	SEGURTASUNA ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOA. GUDARI KALEA 2018KO ABENDUA	302,50
2019-03-12	2018-06-01	0500.480.01.231.00 2019	FARMACIA EDURNE BENGOETXEA	B114112/2018	GIZARTE ZERBITZUETARAKO BOTIKAK	5,13
2019-03-14	2018-12-22	0800.226.06.334.10 2019	ANTONI ALCAIDE I PINEDA	112	TEKNIKARI LANAK EUSKAL BARROKO ENSEMBLEKO KONTZERTUAN	145,20
2019-03-26	2018-11-30	0300.227.07.920.00 2019	TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.	002207	2018KO URRIA, AZAROA ETA ABENDUKO PLENOAK	1.179,75
2019-03-26	2018-11-30	1100.226.03.431.10 2019	TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.	002206	SPOT EUSKAL JAIA	406,56
2019-05-13	2018-11-30	0800.226.06.337.20 2019	CHROMA BRANDING S.L.	2018-0243	OLENTZEROREN ETXEA. FLYERRA	438,63

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46. artikulua arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharre dagokienez. 2018ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2019ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena osko bilkurari dagokio.

Udalbatzak aho batez erabaki du itxitako ekitaldiko faktura hauek onartzea.



TOLOSAKO  
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazquin, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla, Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du ltxitako ekitaldiko fakturak.

**12.2019/8 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1209 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.**      **12. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/1209, del expediente de modificación de crédito 2019/8, en la modalidad de crédito adicional.**

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendiak, EAJ-PNV alderdiko zinegotziak, hamabi, hamahiru eta hamalagarren gai zerrendako puntuen azalpenak eman ditu, zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren kreditu aldaketena.

*"Kreditu aldaketak modalitate ezberdinekoak dira. Zortzigarren kreditu aldaketa gehigarrien modalitatekoa da eta gerakinak erabiltzen dira finantzatzeko. Kasu honetan erabali da alkateak duen %5a Foru Arauak 34. artikuluan xedatzen duen ahalmena. Kasu honetan 114.000€ koa da eta kopuru honekin liberatuen ordainsariak eguneratu eta berriarenak ordaintzeko. Bederatzigarren kreditu aldaketa da lehen aipatu duguna, Transferentzi modalitatekoa. Kasu honetan partida batetik bestera pasatzen da, Kultura eta Gizarte zerbitzuetatik luzatzen zuten eskaerei aurre egiteko. Kulturatik 4.000 € eta Gizarte zerbitzuetako 16.500 €, lehen komentatu dugun bezala adinentzakoentzako arreta zerbitzua martxan jartzeko kontratu txikiaren bidez, kontratazio espedientea garatzen den bitartean. Hamargarren kreditu aldaketa gehikuntza modalitatekoa da, Tolomenditik jaso dugun dirua Urkizuko ur depositua egiteko. Kopura 23.171.,00 €koa."*

2019/8 kreditu gehigarrien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1209 Alkatetza Dekretuaren kontu eman da.



TOLOSAKO  
UDALA

## ALKATEAREN DEKRETUA

2019/ 1209

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000008-00 zenbakiduna,*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	114.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>114.000,00</b>

### FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	114.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>114.000,00</b>



TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko uztailaren 12a

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**13.2019/9 kreditu transferentzien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1218 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.** **13. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/1218, del expediente de modificación de crédito 2019/9, en la modalidad de transferencia de crédito.**

2019/9 kreditu transferentzien modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1218 Alkatetza Dekretuaren kontu eman da.

#### **ALKATEAREN DEKRETUA**

2019/ 1218

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2019-KALD-000009-00 zenbakiduna.*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

#### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulakako laburpen honen arabera:



TOLOSAKO  
UDALA

### **Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	244.996,72	20.600,00	224.396,72
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>244.996,72</b>	<b>20.600,00</b>	<b>224.396,72</b>

### **Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	720.528,00	20.600,00	741.128,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKOAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>720.528,00</b>	<b>20.600,00</b>	<b>741.128,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko uztailaren 12a

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira.





TOLOSAKO  
UDALA

**14.2019/10 kreditu gaikuntza modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1219 Alkatetza Dekretuaren berri ematea.**

**14. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 2019/1219, del expediente de modificación de crédito 2019/10, en la modalidad de habilitación de crédito.**

2019/10 kreditu gaikuntza modalitatean egindako kreditu aldaketaren espedienteari buruzko 2019/1219 Alkatetza Dekretuaren kontu eman da.

### **ALKATEAREN DEKRETUA**

2019/ 1219

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2019-KALD-000010-00 zenbakiduna.*

*Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako foru aruak 31. artikulua 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### **EBATZI DUT**

***Lehenengoa.-*** *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidatako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

### **GASTUAK**

<b>Kap.</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
6	INBERTSIO ERREALAK	23.171,00
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>23.171,00</b>



TOLOSAKO  
UDALA

### SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	23.171,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>23.171,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko uztailaren 12a

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Besterik gabe, 20:15etan, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, Alkateak Ontzat Emanik.

ALKATEAK  
O.E.

IDAZKARIAK